

hh
hik hasi

Heriotzaren lanketa
Dislexia tratatzeko gakoak
Ikus-artearen oinarritutako ikasketa
Adimen emozionala hezkuntzan
Wilhelm von Humboldt
Hezkuntza eredu parekidea
Elen Kortaxarenaren zutabea



UDA KO TOPAKETAK



Ezagutu unibertsoaren historia harrigarria



Ezagutu lurzoruko bizilagunen bizitza ezkutua

IKASI GOZATUZ



Hegazti migratzaileen estrategia harrigarria



Uraren zikloa ezagutzeko ipuina

AURKIBIDEA

GAIA / 8

HERIOTZAREN LANKETA

Heriotzarekin eta suizidioarekin loturiko gaiak lantzen dituzte Patxi Izagirre psikologo klinikoak eta Ane Izagirre musika adituak eta psikologiako ikasleak. Afera horiek azaleratzea dute xede, tabu izateari utz diezaien eta bizitzaren parte bilaka daitezzen. Gai berak jorratuko dituzte Hik Hasi-ren Udako Topaketetan ere.

ELKARRIZKETA 1 / 12

ARANTZA ELGEZABAL

Dislexia duten haurren familien elkartea da Dislegi, eta bertako psikopedagogo eta familien orientatzailea Arantza Elgezabal. Familiei laguntza eta aholkularitza emateko zeregina du batetik Dislegi; bestetik, berriz, eskolen zerbitzura ere badago elkartea, formazioa emanaz irakasleei eta materialak eskainiz ikastetxeei.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpirotz, Ainara Gorostizu, Amaia Mendizabal eta Arantzasu Muñoz.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.
Administrazioa: Uxue Ugartemendia.
Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.
Inprimategia: ANTZA S.A.L
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2018-06-08).
Kopurua: 4.500 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Modu kontzienteagoan bizi

6 ALBISTEAK

18 ELKARRIZKETA 2

ESTIBALIZ ABERASTURI ETA ANDREA ARRIZABALAGA

“Ikus-arteak gogoeta kritikorako bidea ematen du, eta horrekin batera akziora pasatzeko deia egiten digu”

24 EKARPENAK 1

Adimen emozionala hezkuntzan

28 EKARPENAK 2

Materia eta energia gaiak Lehen Hezkuntzan

34 EKARPENAK 3

Humboldt: hezkuntza, hizkuntza eta Euskal Herria

38 GALDEIDAZU

ILAZKI GAINZA

Zer baliabide ditugu haurrak era parekidean hezteko?

42 ATZEKO ATETIK

Elen Kortaxarena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Modu kontzienteagoan bizi

editoriala

FORMAZIOAK, BIZITZA KONTZIENTEAGO ETA OSOAGO BAT EGITEN LAGUNDUKO BADU, EZIN DU IZAN, BESTERIK GABE, DENBORA PASA EGITEN DEN ZERBAIT. EZ. ZEOZER MUGITU BEHAR DU HARTZAILEAREN BARRUAN, ERAGIN.



Denok hilko gara. Hori kontu jakina da. Heriotza afera unibertala da. Eta unibertala da heriotzari zaion beldurra ere. Sarri, ordea, heriotzari beldur izatea bizitzari beldur izatearen erakusle izan ohi da. Bizitza eta heriotza txanpon beraren bi aldeak baitira. Baina heriotza bizitzaren esnagailu ere izan daiteke. Heriotza kontuan hartzeak eta norbere bizitzan txertatzeak bizitza kontzienteago bat egiten lagun dezakeelako. Txikitatik gaia haurrekin lan-tzearen garrantziaz mintzo da **Patxi Izagirre psikologo klinikoa** aldizkari honetako gai nagusian: “Haurrak, normalki, 7-8 urte ingururekin hasten dira heriotzarekiko kezka edo angustia agertzen. Une aproposa izan daiteke gaiari heltzeko eta zerbait normala balitz bezala hartzeko. Hor dago heziketa, txikitatik, heriotza bizitzaren parte gisa hautematean. Hemen betiko ez gaudela kontziente izateak lagunduko baitigu bizitzaren aurrean aukerak egiten, erabakiak hartzen eta modu osoago batean bizitzen”.

Zer da, baina, modu osoago batean bizitzea? Izan daiteke profesional ona izatea? Norbere barrura begiratzea? Harreman osasuntsuak eraikitzen jakitea? Besteak aintzakotzat hartzea? Emozioak kudeatzen ikastea? Taldean jardutea? Hobetu nahi izatea?...

Hain zuzen ere, izan irakasleei zein haien ikasleei, modu osoago batean bizitzen la-

guntzeko erreminta izan nahi dute, beste urte batez ere, Hik Hasi-k antolatu dituen Udako Topaketek. Horrexegatik daukate tokia ikastaroetan emozioek, mindfulness-ak, antzerkiak, sormenak, arteak, konstruktibismoak, yogak, jolasak, garapen pertsonalak, askatasunak... eta, nola ez, heriotzak.

Baina, formazioak, bizitza kontzienteago eta osoago bat egiten lagunduko badu, ezin du izan besterik gabe, denbora pasa egiten den zerbait. Ez. Zeozer mugitu behar du hartzailaren barruan, eragin; alegia, izaera transformatzailea eduki behar luke pres-takuntza-prozesu horrek. Hala dio **Estibaliz Aberasturi-Apraiz EHUko Plastika Adierazmenaren arloko irakasleak** aldizkari honetan: “Ikaskuntza-prozesu orok pertsona mugiarazi behar luke, eta hasieran zuen ikuspegitik beste leku batean posizionatzera eraman”.

Eraldaketaz ari gara, beraz. Inor lehen zegoen horretan utziko ez duen prozesu batez. Ikuspegia zabaltzen eta espazio berrietara jauzi egiten lagunduko duen ibilbide batez. Izan bitez Hik Hasi-ren Udako Topaketak ere eragile, akuilari, eraldatzaile eta transformatzaile bertan parte hartuko duten guztientzat; inor ez dadin etorri bezala joan, eta modu kontzienteagoan eta osoagoan bizitzeko erreminta gisa balio diezaien irakasleei, eta bidez batez, baita haien ikasleei ere.

“EAEEn 1983-2016 urteen artean milaka ikaslek amaitu dute derrigorrezko hezkuntza, euskara maila nahikoa lortu gabe. 206.263 herritar kalkulatu daitezke egoera horretan”.

Euskal Herrian Euskaraz eta Aztiker

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

ENPLEGUA EGONKORTZEKO 1.141 POSTUKO LEP-A ONARTU DU NAFARROAKO GOBERNUAK

Martxoan iragarritako ezohiko lan eskaintza publikoa onartu du Nafarroako Gobernuak. Hezkuntzako behin-behineko postuak egonkortzea du xede. 1.141 postu eskainiko dituzte: 430 Haur eta Lehen Hezkuntzan, 689 Bigarren Hezkuntzan eta 22 Musika eta Arte Eszenikoetan. 717 postu izango dira gaztelaniazkoak, eta 424 euskarazkoak. DBHko postuen zati bat ekainerako deituta dagoen deialdian txertatzeko asmoa adierazi du Maria Solana Hezkuntza kontseilariak.

14.355 IKASLEK EGIN DUTE SELEKTIBITATEA HEGO EUSKAL HERRIAN

Hego Euskal Herriko Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleek unibertsitaterako azken pausoa eman dute ekainean. Nafarroako Unibertsitate Publikoak 3.104 ikasle hartu ditu selektibitate egiteko; Euskal Herriko Unibertsitateak, aldiz, 11.251; horietatik 804 Lanbide Heziketako goi mailako zikloetakoak. laz azterketa egin zutenekin alderatuta, % 5 ikasle gehiago egongo dira.

SEASKAK PROTESTAN SEGITZEN DU 25 IRAKASLE POSTU GEHIAGO BEHAR DITUELA ALDARRIKATZEKO



Irakasle postu gehiago eskatzeko mobilizazioak egiten jarraitzen du Seaskak. Datorren ikasturterako beste 25 postu galdegin dituzte, baina Frantziako Hezkuntza Ministerioak 5,5 besterik ez ditu eskaini. Ministerioaren eta Seaskaren arteko hitzarmenaren izenpetzailea den Euskararen Erakunde Publikoak, bere aldetik, gutxienez, 15 posturen beharra dagoela argudiatu du. Horrengatik bilkurak eta manifestazioak egiten jarraitzen dute Seaskako ikastolak dauden 32 herrietako bizilagunek.

Hur Gorostiaga Seaskako zuzendariaren esanetan, Frantziako Gobernuak aurrekonturik eza argudiatu du Seaskaren eskariei ezezkoa emateko, eta baita ikasle kopurua ere, baina Gorostiagaren arabera, azken hori aitzakia besterik ez da: "Gure ikasle kopurua etengabe ari da hazten, eta gauza bera katalanen, alsaziarren eta bretoien kasuan ere". Seaskako ikastoletan 230 haur gehiago izango direla aurreikusi dute. Horregatik galdegin dituzte irakasle gehiago.

ISABEL ZELAA IZANGO DA ESPAINIAKO HEZKUNTZA MINISTRO BERRIA

Isabel Zelaa aukeratu du Pedro Sanchez Espainiako presidentek Hezkuntza Ministerioa zuzentzeko. Espainiako Gobernuko bozeramaile ere izango da. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu karguan egon zen 2009-2012 aldian, PSE-EEk eraturako gobernuan. Pertsona garrantzitsua da PSE-EEen: 1998tik da Eusko Legebiltzarreko kidea. Hezkuntza sailburu jardun zuenean aldaketak sustatzen saiatu zen, eta, besteak beste, hiru eleko eredu eta euskal gatazkak sortutako biktimak eskoletara joateko programak bideratu zituen. PPK sustatutako LOMCE erreformaren kontra beti jardun du, eta, intsumisiora jo gabe ere, era "sotilagoan" haren aurka egiteko neurriak defendatu izan ditu.

HIZPIDE IZANGO DA

HAUR HEZKUNTZAKO BERRIKUNTZAN IRAKASLE ADITUA IZATEKO FORMAIOA SORTU DU MU-K

Bereziki 0-6 adin tarteko haurrekin lanean aritzen diren profesionalen zuzenduta, Haur Hezkuntzako Berrikuntza Aditu Titulua sortu du Mondragon Unibertsitateak. Tituluak Haur Hezkuntzako profesionalen profila elikatu nahi du, irakasleak berrikuntza prozesuetarako ahalduzko. Lanbidearen alderdi pertsonal eta profesionalaren arteko oreka bilatzeko zereginean eragin nahi du, hala, berrikuntzarako beharrezko konpetentziak garatzeko.

Informazio gehiagorako Jaione Urbietarekin jarri behar da kontaktuan jurbieta@mondragon.edu helbidera idatziz edota 943 714188 telefono zenbakira deituz. www.mondragon.edu webgunean ere eskura daiteke informazio osagarria.

'GAXUXAREN KLARION MAGIKOA' IPUINA ARGITARATU DU HIK HASI-K

Alvaro eta Oihane Beñaranek eginda, "Gaxuxaren klarion magikoa" ipuina argitaratu du Hik Hasi-k, 2 eta 6 urte arteko haurrentzat, beldurrei aurre egiten laguntzeko. www.hikhasi.eus webgunean dago salgai.

ORAINDIK AUKERA DAGO DATORREN IKASTURTEKO HAUR HEZKUNTZAKO 0-3 FORMAIOAN IZENA EMATEKO



0-3 urte arteko haurrekin aritzen diren profesionalen prestakuntza sakontzeko asmoz, 260 orduetik gorako bi urteko formazioa eskainiko du datorren ikasturtean ere Hik Hasik, bere 6. promozioan. Taldea osatu bada ere, oraindik hainbat plaza geratzen dira. Beraz, interesa duenak izena eman dezake tokiak bete arte.

Hainbat oinarri izango ditu formazio horrek: Emmi PIKLER; bestelako zenbait pedagogia BERRITZAILA: Loris Malaguzzi, Rebeca eta Mauricio Wild, Maria Montessori, Angelica Olvera, Rudolf Steiner...; formazio pertsonala, etab.

Ikaslerro horietan gaian adituak diren Euskal Herriko nahiz kanpoko hezitzaileek emango dute prestakuntza. Informazio osoa eta izena emateko aukera: www.hikhasi.eus webgunean dago. Informazio gehiagorako hikhasi@hikhasi.eus-era idatz daiteke edota 943 371408 telefono zenbakira deitu.

'HERRIAK ETA KALEAK GIZARTEAK ERAIKITZEKO PLAZAK' IKASTAROA EGINGO DA UZTAILAREN 16AN ETA 17AN

Azpeitiko Udalak antolatuta, EHuren Udako Ikastaroen barruan *Herriak eta kaleak gizarteak eraikitzeke plazak*. Herri hezitzaileak eta kulturgintzaren transmisioa Euskal Herrian ikastaroa egingo da uztailearen 16an eta 17an Donostiako Miramar jauregian. Hizlarien artean izango dira Bartzelonako Udaleko ordezkari Joan Subirats, Lorea Agirre, Joxe Mari Auzmendi, Iratxe Retolaza edota Gotzon Barandiaran. Informazio gehiago nahi izanez gero, edota matrikula egiteko www.uik.eus webgunera jo behar da.



Heriotzarekin eta suizidioarekin loturiko gaiak lantzen dituzte Patxi Izagirre psikologo klinikoak eta Ane Izagirre musika adituak eta psikologiako ikasleak. Afera horiek azalratzea dute xede, tabu izateari utz diezaien eta bizitzaren parte bilaka daitezzen. Helburu berarekin "Suizidioaren prebentzioa" izeneko ikastaroa emango dute Leioan eta "Heriotzaren psikopedagogia" izenekoa Donostian, Hik Hasi-ren Udako Topaketetan. Heriotzaren psikopedagogiaren funtsa litzateke heriotza kontuan hartzea bizitza kontzienteago bat egiteko; suizidioaren prebentzioarena, berriz, eskoletan gaiak hitz egitea, heriotzak saihesten laguntzeko.

GAIA:

HERIOTZAREN

LANKETA

Bizitza kontzienteagoa egiteko

Bizitzarako heztean esan nahi du, nolazpait, haur eta nerabeekin heriotzaren gaia lantzeak, maila psikologikoan heriotzaren kontzientzia edukitzeak zerikusi handia izan baitezake bizitzaren esnagailu moduan. Heriotzaren eta suizidioaren gaia lantzeko, Hik Hasi-ren Udako Topaketetan, “Suizidioaren prebentzioa” izeneko ikastaroa emango dute Leioan eta “Heriotzaren psikopedagogia” izeneko Donostian, Patxi Izagirre psikologo klinikoak eta Ane Izagirre musika adituak eta psikologiako ikasleak. Heriotzaren psikopedagogiaren funtsa litzateke heriotza kontuan hartzea bizitza kontzienteago bat egiteko; suizidioaren prebentzioarena, berriz, eskoletan gaiak hitz egitea, heriotzak saihesten laguntzeko.

“Denok hilko gara”

Heriotzaren psikopedagogia izeneko kontzeptua heriotzaren didaktikaren gainean lanean urteak daramatzen Agustin De la Herrán Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakasleari entzun zion lehen aldiz Patxi Izagirrek. Kontzeptua eta hark azpian jasotzen zuena gustatu eta Euskal Herriko ikastetxetara ekarri zuen 2004-2005 ikasturte inguruan.

Heriotzaren aurreko beldurra afera unibertsala da, gizaki guztiok hilko baikara. Ezagutzen ez dugun egitate bat da, eta maila filosofikoan eta praktikoan, heriotzak esan nahi du jada bizitzarik ez dagoela. Sarrri, heriotzari zaion beldurra bizitzari eta bizitzeari beldur izatearekin ere lotzen da. Hala dio Izagirrek: “Beldur diogula heriotzari? Akaso, gure bizitzan heriotza ukatu egin dugulako izango da, edo heriotzarekin loturik ditugun eredu guztiak oso mingarriak direlako. Berreziki, ustekabeen iristen bada, edota modu traumatikoan”.

Beraz, Udako Topaketetan eskainiko dituzten ikastaroen helburua da irakasleei nahiz gurasoei helaraztea haurrekin txikitatik gaiak modu naturalean hitz egiteak duen garrantzia. “Haurrak, normalki, 7-8 urte ingururekin hasten dira heriotzarekiko kezka edo angustia agertzen, bada, une aproposa izan daiteke gaiari heltzeko eta zerbait normala balitz bezala hartzeko. Hor dago heziketa, txikitatik, heriotza bizitzaren parte gisa hautematean. Hemen betiko ez gaudela kontziente izateak lagunduko baitigu bizitzaren aurrean aukerak egiten, erabakiak hartzen eta modu osoago batean bizitzen”. Horrek, noski, ez du esan nahi heriotza, galera... mingarria eta tristeza izango ez denik, traumatikoa ere bai akaso, baina psikologoak argi du haur zein nerabeek heriotza txikitatik euren bizitzetan txertatzea eta modu inklusiboan hartzea onerako soilik dela. Beste gai batzuekin egiten den moduan —sexualitatea, drogak, istripuak...— gaiaren inguruan hitz egitea eta berbalizatzea bera asko egitea dela irizten du. “Adibidez, sexualitatearen kasuan errazago ikus genezake, gai hori lantzeak aberastu egiten duela haurra edo gaztea, beste normalitate eta kontzientzia bat ematen diolako gaiari. Kontua da, heriotzarekin justu kontrakoa egiten dugula. Ezkutatu egiten dugu gai hori, ukatu egiten dugu, ez gara jabetzen, heriotzaren gaia lantzeak, sexualitatearen gaia lantzeak bezalaxe, esate baterako, gure haur eta gazteei harreman hobek erakitzen lagun diezaikeela”.

Edozein kasutan, psikologoak uste du eskolan lehen baino garrantzi handiagoa ematen zaiola ez soilik doluaren gaia lantzeari, baita heriotza bera edota galeren gaia modu didaktikoan jorratzeari ere. “Lehen eskoletatik zerbait gertatzen zenean bakarrik deitzen zuten, krisi momentuan; orain, berriz, esango nuke gaiari modu pedagogikoagoan heltzen zaiola. Material gehiago dago, kontzientzia handiagoa, eta

GAIA: HERIOTZAREN LANKETA

Bizitza kontzienteagoa egiteko

formazioa zabaltzeko jakintza nahi dute irakasleek, ez zerbait gertatu den momentuan jazoera horri erantzun behar zaio-lako, baizik eta gaia landu nahi dutelako modu pedagogiko batean”.

Heriotzaren gaia lantzerako orduan, Izagirreraren irudiko, helburuak heriotzaren gaira hurbiltzea izan behar luke, ez angustiaren edo traumaren bidez soilik, baizik eta batez ere esker ona elikatuz, xedea izanik hil den hori esker onez gogoratzea. Finean, kontua litzateke heriotzaren goarnizioa sortzea, bai aurretik hil den harekin bizi izandakoarekin eta baita ondoren gogoratuko denarekin ere. “Askotan heriotzara modu traumatikoan soilik gerturatzen gara: ‘Nola eman notizia? Zer egin gero? Erraustera joaten garenean zer esan behar diegu umeei?’ Beraz, heriotzaren gaia eklipsatu egiten dugu traumaren gaiarekin. Gure nahia litzateke, hezkuntzan heriotzarekin zerikusia duten gai horien guztien gainean modu lasai eta didaktiko batean hitz egitea”. Ane Izagirrek eranstean duenez, heriotzaren gaiari txikitatik heltzeko beste modu bat izan daiteke haurrak bere heltze prozesuan bizi behar izaten dituen hainbat galera lantzea; hala nola, txupetearen galera, panpinak baztertzea, edota zahartxeagotan, mugikorreko kontaktuak aldi batez albo batera uztea bera.

Heriotzaren afera kudeatzeko gure gizarteak duen zailtasunaren atzean, frustrazioarekiko lotura egon daiteke. Alegia, Izagirretarren iritziz, heriotza ezkututzen saiatzen gara edo ez diogu behar bezala aurre egiten, giza frustrazioaren ikur nagusia delako, itzulezintasunaren sinbolo nagusi den heinean. Beraz, frustrazioa egoki kudeatzen ikasteak berak lagunduko luke galeren eta heriotzaren aferari modu hobean heltzen.

Zer dio neurobiologiak?

Haurtzaroan gertuko heriotza batek izan dezakeen eragina ikertu du azken urteetan neurobiologiak. Bereziki, umeak 7-8 urte bete baino lehen heriotza-prozesuren bat bizi behar badu, zer gerta daitekeen haren garunean. “Adin horretan koagulu emozional moduko bat gerta daiteke maila kognitiboan, baina koagulu hori nerabezaroan edo unibertsitateko lehen urteetan berragertu egiten da. Adibidez, gerta daiteke haur bat umezurtz geratzea Haur Hezkuntzako etapan edo Lehen Hezkuntzako lehen urteetan, eta askotan uste izaten da dolua gainditua duela inolako sintomatologiarik agertu ez duelako, baina gero nerabezaroan edo unibertsitateko lehen urteetan nolabaiteko krisi moduko bat agertu ohi da”. Funtsean, psikobiologiak dio badagoela zerbait modu asoziatiboan pertsonaren memorian grabatuta geratzen dena. Kontuan izan behar baita zazpi urte baino lehen trauma gogor bat bizi izanez gero, artean haurrak itzulezintasunaren egitea barneratu gabe daukala, eta trauma hori umearen

memoria emozionalean geratzen dela grabatuta modu asoziatiboan. “Bizi izan duen heriotzaren testuinguruko parteren bat —paisaia, usaina, musika... — enkriptatuta gera daiteke haurraren barnean, eta behin ume horrek pentsamendu abstraktua garatzen duenean eta bere izaera egituratzen doan heinean, enkriptatutako elementu horiek oihartzun moduan etor daitezke bueltan. Kanpoko estimulu batekin pizten zaigun barneko zera hori da, enkriptatuta geratu den koagulu horrekin konekzioa eginarazten diguna”.

Hori gerta daiteke heriotzaren gaia eta doluarena, bere momentuan, ondo landu ez delako, eta heriotzari begiratu beharrean eta horrekin konektatu beharrean zaurian benda jarri eta aurrera jarraitu delako. Izan ere, sarri, tapoi batez itxi ohi da heriotzaren gaia eta aurrera jarraitu. “Askotan hori gertatzen da kanpoan dauden pertsonak ere doluan daudelako. Beraz, ebitaziozko mekanismoak jorratzen dituzte bereziki, eta ez konexiozko mekanismoak”. Eta psikologo klinikoak dioenez, dolu prozesuan oso kontuan izan behar litzateke zein diren konexiozko mekanismoak eta zein ebitaziozkoak. Zeren, normalki, haurrekin gehienetan ebitaziozko mekanismo horiek erabiltzen dira, sufritu ez dezan, edo estresatu ez dadin. Horrek, ordea, fragmentazio emozionala eragin dezake, gero umeak abstrakzioarako gaitasun hori garatzen duenean berpizten dena. “Askotan behar den momentuan heriotzaren gaia gaizki lantzen da, gurasoak edo hezitzaileak haurra ahalik eta hobekien ikusi nahi duelako lehenbailehen”.

Musika, heriotza lantzeko tresna

Heriotzaren gaia lantzeko garaian, bai prebentzioan (gaia lantzerakoan, nahiz eta heriotzarik gertatu ez inguruan) edota baita posbentzioan ere (dolua tratatu behar denean), musika eta ahotsa dira Patxi eta Ane Izagirrek erabiltzen duten tresna nagusietako bat. Aurrelana egiteko, adibidez, zenbait kantaren —bai euskal tradiziokoak bai nazioarte-koak— letrak balia daitezke; doluan, berriz, hainbat melodia nahiz ahotsa erabil daitezke barne sentipenekin eta gorpuztean metatutako minarekin konektatzeko. Hala esplikatzen du Ane Izagirre musikako adituak: “Ikertuta dago musika entzuten dugunean zenbait neurotransmisore isurtzen ditugula garunean. Neurotransmisoreak biomolekula batzuk dira neurona batetik bestera sinapsiaren informazioa garraiatzen dutenak. Musika entzuten dugunean dopamina isurtzen da. Eta dopamina plazerarekin lotzen den neurotransmisore bat da. Beraz, musika entzuten dugunean dopamina isurtzen da eta horrek plazera eragiten digu. Finean, musika guztietan dagoelako harmonia bat, gero melodia bat edo bestea ematen duena”. Psikologoak eranstean duen legez, hitza iristen ez den lekuetara ailegatzen da musika.

Suizidioaren tabuari aurre egin nahian

Datuak argiak dira: kotxe istripuz hiltzen diren pertsonen bikoitza hiltzen da suizidatuta. Hala ere, gutxi hitz egiten da suizidioaz. Tabua da gaia, ezkutatu egiten da. Sarri, pentsatu ohi da gaia mahaigaineratzeak heriotza gehiago eragingo dituela. “Uste izan da suizidioaz hitz egiteak jende gehiago suizidatzea ekarriko duela, eta horregatik gaia saihestu izan da”, argitzen du Ane Izagirrek. Kontrara, ordea, modu serioan eta gutxienezko zorrotasun batekin suizidioaz hitz egitea prebentiboa izan daitekeela uste dute psikologoek, gai azarritzeak heriotzak saihesten lagun dezakeela. Hala dio Patxi Izagirrek: “Ez dezagun soilik suizidioaz hitz egin heriotza gertatu denean eta modu sentsazionalista batean. Goazen modu etikoan hitz egitera, baita gela barruan ere, krisi garai batean akaso norbaiti balioagarria egingo baitzaio aurretik gaiaz hitz eginda egotea suizidioa saihesteko”.

Gaiaz hitz egitearen beste helburu bat da suizidioaren bat bizi izan duten familiak ez berriz biktimizatzea eta familiari dolu-prozesua behar den bezala egiten uztea beroiek epaitu gabe, edota nolabaiteko lintxamendu moralean eta estigmatizazioan erori gabe familia horrekiko. “Askoz ere gehiago kostatzen da pertsona bat suizidatuta hil dela esplikatzea, baita onartzea ere; errazagoa da esatea istripuz hil dela edo gaixotasun batek jota. Saiatu behar genuke heriotza ororen gainean jarrera berarekin erantzuten”.

Sufrimendu izugarria, sintoma

Psikologoek diotenez, kasu askotan depresiora edo buruko trastorno larri batera iritsi ez arren, suizidioaren atzean beti dago muturreko sufrimendua: “Neurri batean hor atzean dagoena da osasun mentala gehiago garatzeko beharra, hau da, sufrimendu hori kanporatzeko, partekatzeke, agerian jartzeko, laguntza eskatzeko... beharra. Beste hitz batzuetan esanda, bakarrik ez geratzeko eta lagunduta egoteko premia”.

Gainera, psikologoak beldur dira, modu arriskutsuan, suizidioaren inguruko erotika bat sortzen ez ote den ari, erromantizismo kutsu batekin, sinetsirik bizitza honetako sufrikarioen aurreko irtenbide bat izan daitekeela. *Thelma eta Louise* pelikulan bezala, erotika libertario batez ariko ginateke. Norbere askatasunaren azken muturreko lorpen gisa ikusten da suizidioa. Baina, noski, horrek ez dauka atzera bueltarik. Eta kontuan izan behar dugu 15 eta 30 urte arteko gazteen artean gora egin dutela suizidio kasuek eta gaur egun lehen heriotza kausa direla”.

Suizidioaren atzean egon daitezkeen zergati erreparatzea, ordea, sarri, alferrikakoa iruditzen zaie Patxi eta Ane Izagirreri eta horren ordez, prebentzioan indar egin behar dela aldarrikatzen dute. Nola? Ez da formula zaila: hitz eginez. “Ni konbentzita nago gazte-gaztetatik genero indarkeriaren gainean hitz eginez gero, gazte-gaztetatik drogaren inguruko informazioa edukiz gero, gazte-gaztetatik suizidioa aztergai hartuz gero... hein batean, kasu batzuk prebeni daitezkeela. Gertatuko dira? Bai. Baina lortzen badugu baten bat saihestea, bada zerbait”.

Beraz, gertatu aurretik, hezkuntza mailan, modu didaktikoan, geletan suizidioaren gainean hitz egitearen garrantzia azpimarratzen dute psikologoek, bereziki Bigarren Hezkuntzatik aurrera. Zein helbururekin? Sufrimenduaren aurrean bakarrik ez sentitzea, eta tribuaren babesa sumatzea. “Askotan suizidioaren burutazio horretan egon daiteke gaztea, bakardade horretan, isiltasun horretan, nolabaiteko nahaste zehazgabe horretan... bada, kasu horretan guk aukera bat eskaini behar diogu eta gai horretaz ere hitz egin dezakeela helarazi behar diogu. Berbalizazioa defendatzen dugu, ez akaso zuzenean suizidioari aurre egiteko, baina bai pertsona batek senti dezakeen sufrimenduaren aurrean laguntza eskatzeko gai izan dadin lortzeko, ardatz nagusiztat osasuna hartuz”.





ELKARRIZKETA 1:

ARANTZA

ELGEZABAL

Dislegi elkarteko psikopedagogo eta orientatzailea

“Errefortzuarekin dislexia dutenek hobera egiten dute eta oso ondo eboluzionatzen dute”

Dislexia duten haurren familien elkarrekin da Dislegi, eta bertako psikopedagogo eta familien orientatzailea Arantza Elgezabal. Familiei laguntza eta aholkularitza emateko zeregina du batetik Dislegik; bestetik, berriz, eskolen zerbitzura ere badago elkarrekin, formazioa emanaz irakasleei edota materialak eskainiz ikastetxei. Hain zuzen, Hik Hasi-ren Udako Topaketetan dislexiaren gaineko ikastaroa emango du Elgezabalek, gaiaren inguruko ezagutza teorikoak aurkezteaz gain, irakasleei bitarteko praktikoak ere eskaintzeko.

Hezkuntza arloan askotan entzuten den hitza da *dislexia*, baina ba al dakigu benetan zer den eta zer-nolako ezaugarriak dituen dislexia duen ume batek?

Irakurketa- eta idazketa-prozesuan zailtasunak agertzen dituztenean, haur batek dislexia izan dezakeela pentsatu behar dugu. Jatorri neurobiologikoa dauka dislexiak. Irakurtzean garunean aktibatu behar liratekeen atalak edo zonaldeak ez dira behar bezala aktibatzen dislexia duen pertsonaren kasuan. Hori batetik; bestetik, berriz, kontzientzia fonologikoari dagokionez, dislexia dutenek soinu bat entzuten dutenean, alegia, fonema bat entzuten dutenean hautematen dutena eta gero garunak interpretatzen duena, ez dira bat etortzen.

Horrez gain, dislexiaren kasuan, osagai genetikoa ere kontuan izan behar da, haur baten gurasoek, aiton-amonek, izaba-osabek dislexia izan badute, errazagoa da umeak ere

dislexia izatea. Azken datuen arabera, gizarte honetako biztanleen %10-15ek dislexia dute. Egia da azken urteetan detekzioa hazi egin dela, zorrotasun handiagoa dagoelako. Orain urte batzuk, akaso, dislexiadunak porrot-kasu gisa kontatuko ziren, eta kito.

Dislexia dutenek irakurketa- eta idazketa-prozesuan zailtasunak izaten dituztela aipatu duzu. Zer-nolako zailtasunak izan ohi dira horiek?

Dislexia duten pertsonen garuna ez dago irakurketa eta idazketa-prozesuak garatzeko prestatuta. Hortaz, irakurtzen edota idazten hasten direnean garunean ez zaizkie aktibatu behar liratekeen zonaldeak aktibatzen, beste batzuk baizik. Dislexiarik ez duten pertsonen aktibatzen zaizkien zonaldeak ezkerreko hemisferiokoak dira; dislexia duten gehienei aktibatzen zaizkienak, berriz, eskuineko hemisferiokoak. Beraz, hemisferio batetik besterako informazio-aldaketa egin behar izaten dute eta horrek arazoak sor ditzake.

Dislexia duten pertsonen kasuan ohikoa da zailtasunak izatea hizkiak irakurtzerakoan: hizkiak jatea edo aldatzea, hizkiak alderantzizkatzea... Bestalde, irakurketako abiadura mantsoagoa da: silaba guztiak jarraian irakurtzera igarotzeko pausoa ematea kosta egiten zaie.

Horrez gain, “laneko memoria” deiturikoarekin ere arazoak izan ohi dituzte. Adibidez, sekuentzia bat ordenatu behar dutenean; hala nola, asteko egunak, hilabeteak, urtarok,

taulak, istorioak... Ortografia edo hiztegia ikasteko ere laneko memoriak garrantzia du, esate baterako, esanahi bera adierazteko hiru hitz desberdin erabiltzeko.

Dislexiak bere baitan hartzen duen errealitatea, beraz, oso zabala da.

Bai, hala da. Dislexia dutenek, alde batetik, mekanikari loturiko zailtasunak izan ohi dituzte. Hizkiak jaten dituzte, irakurtzerakoan abiadura motela izaten dute, bukaerak aldatzen dituzte (euskararen kasuan hori asko gertatu ohi da deklinabidearekin), hitzak gaizki lotzen dituzte, etab. Akats horiek mekanikarekin dute zerikusia, baina horrek, era berean, ulermenari eragiten dio zuzenean. Eta, hain zuzen ere, beste aldetik, ulermenarekin loturiko zailtasunak ere izan ohi dituzte: irakurri duten testua zeri buruzkoa den esaterako orduan, ideia nagusiak azpimarratzerakoan edota mamia ateratzerakoan. Sarri, testuan irakurritako zerbaiti buruz galdetzen badiezu, azkena irakurri duten hura errepikatuko dituzte. Abiadura onean eta zuzen irakurtzen duten dislexiadun haur batzuen kasuan ere gerta daiteke ulermenarekin zailtasunak izatea. Eta, hirugarrenik, dislexia duten zenbait haurrek bi zailtasunak —alegia, mekanikarekin loturikoak nahiz ulermenarekin zerikusia dutenak— batera izan ohi dituzte.

Eta nola detekta daiteke dislexia? Aurrez aipatu dituzun zailtasun horiei erreparatu behar al litzaieke?



Askotan gurasoek detektatzen dute. Gerta daiteke gurasoak berak ez jakitea dislexia duenik, baina umeari eskolan gertatzen hasi zaionarekin identifikatzea eta esatea: “Niri ere antzeko zerbait pasatzen zitzaidan”, edota izeba bat edo osaba bat dauka ume horrek arazo berberarekin.

Beste batzuetan gertatu ohi da neska-mutiko horiek hizketan hasten direnean dislaliak agertzea, hau da, ‘R’-arekin zailtasunak izatea, ‘S’ eta ‘Z’ ez bereiztea, beste fonema batzuekin ondo ahoskatzeko arazoak izatea, hitz egiten berandu hastea...

Horrez gain, Haur Hezkuntzako etapan gerta daiteke haurrak koloreak ondo identifikatzea *gorria* edo *berdea* den zerbait hatzarekin seinalatze eskatuz gero; ez, ordea, alderantzizko kasuan: alegia, helduak seinalatzen dion kolore hori izendatzeko zailtasunak izatea.

Gainera, lehen aipatu dugun lanerako memoria horrekin, hau da, sekuentziak buruan gordetzea eskatzen duten jarduerekin zailtasunak izan ohi dituztenez, kostatzen daie erritmoa eramatea txaloen bidez, hankekin zorua jotz... Eta, era

berean, olerkiak nahiz abestiak ere askotan aldatu ohi dituzte. Beraz, Haur Hezkuntzatik hasita erne egotea komeni da.

Diagnostiko goiztiarra egitea oso garrantzitsua dela azpimarratzen duzue Dislegi elkartean.

Bai, zeren askotan haurrak irakurketa-prozesuarekin hasten direnean konturatzen dira zerbait gertatzen dela: “Zergatik kostatzen zait hainbeste irakurtzea eta besteei ez?”, galdetu ohi dute haur horiek. Sarri, badirudi momentu zehatz batean hizkiak ezagutzen dituztela, baina akaso hurrengo egunerako edo handik astebeterako ahaztu egiten zaizkie. Beraz, zer gertatzen da ume horren buruan?

Garaiz konturatzen ez bagara eta konponbiderako neurriak hartzen ez baditugu, LHko 1. eta 2. mailan, haurrak eurak konturatzen dira zerbait gertatzen zaiela eta kideek ez bezalako zailtasunak dituztela. Dislexiak eragindako zailtasunak izateaz gain, ume horiek arazo emozionalekin hasten dira une horretan: autoestimua behera egiten du, ez

dute eskolara joan nahi izatean, etab. Beste batzuetan, berriz, somatizazioak ere izaten dituzte. Dislegira bat baino gehiago etortzen zaigu peditrak hona zuzendu dituelako, buruko minarekin, tripako minarekin, “gaizki nago” bezalako esaldiekin...

Dislexiak jatorri neurologikoa daukala aipatu duzu. Beraz, diagnostiko egiteko haurrei inolako probarik egiten al zaie?

Bai, TAC-a egin ohi da, batzuetan. Umea irakurtzen jartzen da eta garunaren esplorazioa egiten da ikusteko zein zonalde aktibatzen diren eta zein ez. Kontua da, ordea, askotan, diagnostikoa egiteko ez dela TAC-ik behar. Gainera, Dislegin defendatzen dugu, nahiz eta diagnostikorik eduki ez, eskolan Haur Hezkuntzatik hasita zerbait egin dezakegula prebentzio moduan. Badaude zenbait jardunbide egokiak izan daitezkeenak bai dislexia dutenentzat baina baita dislexiarik ez dutenentzat ere. Horietako bat da kontzientzia fonologikoa lantzea. Izan ere, Haur Hezkuntzan kontzientzia fonologikoa landuz gero, aurrera begira irakurketa-prozesua errazago

garatu ohi dute dislexia duten haurrek, nahiz eta horrek ez duen esan nahi dislexia joan egingo zaienik. Ez, dislexia duenak betiko izango du.

Kontzientzia fonologikoa diozuean, zertaz ari zara zehazki?

Kontzientzia fonologikoa fonemen ezagutzari deritzogu. Haur Hezkuntzan, adibidez, dena ahoz lantzen denez, zera galde diezaiokegu: "Esaidazu *aulkia* hitza zein soinurekin hasten den", edo "Hiru hitz emango dizkizut: *aulkia*, *mahaia*, eta *mamua* eta esan zein hasten diren soinu berberarekin eta zein ez", edo ipuin bat irakurtzean haurrari *astoa* hitza edo *txerria* hitza edo beste bat entzundakoan eskua altxatzeko eskatzea.

Eskoletan behar beste ezagutza badago dislexiaren gainean?

Nik uste dut baietz, baina askotan berandu detektatzen dela esango nuke. Lehen Hezkuntzako lehen zikloan atzerapena antzeman arren, sarri, tartean beste arrazoi batzuk daudela uste izaten da: haurra abendukoa dela, erritmo mantsoagoan ari dela garatzen, itxaron egin behar dela... baina Haur Hezkuntzatik hasita egon ohi dira seinale adierazgarri batzuk eta horiei kasu egin behar zaie, arreta goiztiarrarekin neurriak hartuz gero, hurrengo urteetan aurrera errazago egingo duelako.

Eta zein neurri har daitezke dislexia duten umei laguntzeko? Haur Hezkuntzan kontzientzia fonologikoa lantzearen garrantzia aipatu duzu. Bada egin daitekeen beste zerbaitez?

Kontzientzia fonologikoarena batetik. Bestetik, berriz, segidan 2-3 jarraibide ematen badizkiegu, askotan galdu egiten dira. Hortaz, argibideak ematean, akaso ez da hain garrantzitsua sinpleak izatea, baina bai banan-banan ematea eta argi eta zehatz azaltzea. Bestela nahastu egiten dira, lehen aipatu dugun lanerako memoria horren baitan sekuentziak jarraitzeko zailtasunak dituztelako.

Lehen Hezkuntzako lehen zikloan, bestalde, irakurketa lantzerako orduan garrantzitsua da umeari lagun egitea, eta bera hitzen aurrean bakarrik utzi beharrean berarekin batera

irakurtzea. Asko irakurtzea garrantzitsua da probatuta dagoelako zenbat eta gehiago ikusi eta irakurri hitzak, orduan eta hitz gehiagoko oinarria osatzen dutela euren garunean. Dislexiarik ez duen pertsona bati, hitz bat behin edo bitan irakurrita buruan geratzen zaio, baina dislexia duenak behin eta berriz entzun eta irakurri behar izaten du hitz hori buruan gordetzeko.

Beraz, dislexia dutenek entzundakoa errazago gordetzen dute buruan ikusitakoa baino.

Bai, dudarik gabe, eta hori da zenbait dislexia kasu 4., 5. edo 6. mailetara arte ez detektatzeko arrazoietakoa bat. LHko lehen zikloan, eta askotan bigarrenean ere bai, azalpenak irakasleek ematen dituzte ahoz. Informazio hori oso ondo atxikitzen dute buruan, baina adin batetik aurrera horrek ez die balio, testuak irakurtzeko eta han jartzen duena ulertzeko gai izan behar dutelako. Hala, testua irakurtzeko eskatzeaz gain, dislexia duten haurrei azalpenak ahoz ere ematea oso garrantzitsua da. Gaur egun, teknologia berriek ere beste erreminta oso erabilgarri bat eskaintzen digute haur horien kasuan.

Bestalde, guk familiei gomendatzen diegu eskolan gutxieneko curriculumak eskatzeko. Hau da, hiruhilekoa pasatzeko ikasi beharreko gutxienekoak zeintzuk diren galdetzeko. Zertarako? Bada, etxean laguntzeko; hori bai, beti modu ludikoan. Adibidez, hilabete honetan landareak landu behar badituzte asteburua erabil daiteke museo batera joateko edo parke natural batera irteera egiteko, Youtubeko bideoen bat balia daiteke... Hala, eskolan azalpenak jaso behar dituztenean arreta errazago mantenduko du dagoeneko badakielako gaia zer buruzkoa den. Gainera, zerbaitez galdetzen dutenean berak erantzuna baldin badaki, autoestimurako ere balioko dio horrek.

Zer gertatzen da batzuetan? Ikasle hauei arreta falta ere detektatzen ditela. Askotan, ordea, arreta gabezia faltsuak izan ohi dira. Zergatik? Bada, irakaslea hasten baldin bada gai baten inguruko azalpenak ematen eta dislexia duen ume batek ez badu

"Dislexia duten pertsonen garuna ez dago irakurketa eta idazketa-prozesuak garatzeko prestatuta. Hortaz, irakurtzen edota idazten hasten direnean ez zaizkie aktibatu behar lirakeen zonaldeak aktibatzen, beste batzuk baizik"

"Haur Hezkuntzatik hasita egon ohi dira seinale adierazgarri batzuk eta horiei kasu egin behar zaie, arreta goiztiarrarekin neurriak hartuz gero, hurrengo urteetan aurrera errazago egingo dutelako"

"Familiei gomendatzen diegu eskolan gutxieneko curriculumak eskatzeko, etxean laguntzeko"

edukia kontrolatzen eta kosta egiten baldin bazaio irakasleari ulertzea, edo hiztegia ez badu oso ondo menderatzen... deskonektatu egingo du segituan. Gainera, kontuan izanik gaur egungo hezkuntza-sistemaren oinarria irakurketa dela eta haur hauek zailtasunak dituztela irakurketarekin... bada salduta geratzen dira. Horrelako hezkuntza-sistema batean egunean bost ordu igarotzea ezinezkoa da dislexia duen haur batentzat.

Garaian neurriak hartzen badira, dislexia duten ikasleek euren ikasketaprozesua arazorik gabe egin dezake, hortaz?

Bai. Baina ikasle hauek dituzten premien gaineko kontzientzia landu behar dugu. Esate baterako, dislexia duten ume gehienek ahoz oso ondo azaltzen dituzte gauzak. Beraz, aukera eman diezaiekegu gela osoaren aurrean aurkezpenak egiteko.

Gainera, berak ondo barneratuta baldin badauka gaia, besteei oso modu ulergarrian adierazteko gauza izango da, eta horrek bere autoestimuan laguntzeaz gainera, beste ikasleei ere mesede egiten die, oso erraz ulertzen dutelako. Sarri, gelako kideei galdetu eta esaten dute: "Orain, bere azalpenekin, oso ondo ulertu dugu dena".

Baina dislexia duen haur batek azalpen hori bera eman behar badu idatziz, ez du zerikusirik izango. Batetik, energia asko gastatzen dugulako idazten. Normalean, guk energia gehien ideiak egituratzeko, zer jarri erabakitzeke, kontzeptua nola landu pentsatzeko... erabiltzen dugu. Baina dislexia dutenek energia gehiena zuzen idazteko erabiltzen dute. Hortaz, energia gehien horretan gastatuz gero, aukera handiagoa egongo da bidean galtzeko, jada energiari ez daukatelako testu baten egiturari erreparatzeko, edo esaldia nola hasi duten gogoratzeko, edo zer

jarri duten jakiteko...

Horrexegatik, guk Dislegitik eskatu ohi dugun beste gauza bat da azterketak ahoz ere egiteko aukera ematea haur hauei. Akaso ez ebaluazio osoa ahoz egitea, baina aukera bat izan daiteke % 50 ahozkoa izatea eta beste % 50 idatzizkoa. Horrekin batera, dislexia duten haurrentzat oso baliagarria izan ohi da irakaslearen ahozko azalpenak grabatzea gero etxean entzuteko. Esan dugun bezala, edukiak behin baino gehiagotan entzun eta landu behar izaten dituztelako, eta ahal bada, hobe era ezberdinetako esperientzien bidez egiten bada: eskolan, etxean, museo batera joanda, bideo bat ikusiz Interneten... Zenbat eta esperientzia gehiago bizi, orduan eta hobeto ulertuko dituzte kontzeptuak. Eta are hobe, horretarako metodo multisentsorialak erabiltzen badituzte.

Dislexia duten haurren familiek la-



guntza ekonomikorik izaten al dute?

Ez dute diru-laguntzarik jasotzen. Probatuta dago berreziketa egitean garuna behar diren zonalde horiek aktibatzen hasten dela. Errefortzua-ekin dislexia dutenek hobera egiten dute eta oso ondo eboluzionatzen dute. Dislexia betiko izango da, baina ikasle horiek hainbat estrategia garatzen dituzte eskolan eta bizitzan aurrera egiteko, eta ondo irakurtze-
ra eta idaztera iristeko. Kontua da, normalki, berreziketa eta errefortzu lan hori eskolatik kanpo egiten dela. Eta hori dirutza kostatzen da. Batzuetan, gainera, eskolan ez da diagnostikorik egiten eta familiek kanpoko zerbitzuetara jo behar izaten dute eta hori diru asko izaten da. Hori bai, hezkuntzak ez baldin badu egiten diagnostikoa eta zuk egin behar baduzu kanpoko kabinete batean, eskolak onartu beharra dauka kanpoko diagnostiko hori. Hala ere, hezkuntza-sistemaren baitan diagnostiko

hori ez egin arren, irakasleak dislexia kasu bat sumatzen badu neurri batzuk hartu behar lituzke. Horregatik guztiagatik diogu Haur Hezkuntzatik hasita prebentzioa egitea inportantea dela.

Bestalde, eskolan haur horiei antzematen zaizkien seinale adierazgarri horiek guztiak dokumentatzea aholkatzen dugu eta haur horien gaineko txosten bat egitea. Izan ere, askotan ume hauen inguruko informazioa ahoz soilik pasatzen da eta bidean galdu egiten da. Eta, sarri, gurasoak aldiero hutsetik hasita irakasle bakoitzari euren seme-alaben gaineko zehaztapen guztiak ematen aritu behar izaten dute, eta horrek ahitu egiten ditu eta erre. Era berean, gure gomendioa izaten da haur horien gaineko informazioa txostenean biltzeko orduan, dituzten indargune eta gaitasunetan zentratzea, ez soilik, joera dugun moduan, arazoetan edo ahulguneetan.



"Dislexia duten haurrei azterketak ahoz ere egiteko aukera emateko eskatu ohi dugu Dislegitik"

"Gure gomendioa da haur horien gaineko informazioa idaztean dituzten indargune eta gaitasunetan zentratzea, eta ez soilik ahulguneetan"

m
Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

HEZKUNTZA MASTERRAK

- 1** Berrikuntza Didaktiko Metodologikoko Proiektuen Garapena eta Kudeaketa Hezkuntza Erakundeetan Unibertsitate Masterra (BERRIMET)  online
- 2** Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan Unibertsitate Masterra (EKOMU)  online
- 3** DBHn, Batsillergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan Irakasle Gisa Aritzeko Gaitzen duen Unibertsitate Masterra

**Egin zaitez hezkuntza
berrikuntzan aditu**

www.mondragon.edu/unibertsitatemasterrak



ELKARRIZKETA 2:

ESTIBALIZ ABERASTURI ETA ANDREA ARRIZABALAGA

ARTikertuz egitasmoko kideak

“Ikus-arteak gogoeta kritikorako bidea ematen du, eta horrekin batera, akziora pasatzeko deia egiten digu”

"ARTikertuz, ikus-artearen oinarritutako ikasketa" izeneko ikastaroa emango dute Estibaliz Aberasturi-Apraiz EHU/UPVko Plastika Adierazmenaren arloko irakasleak eta Andrea Arrizabalaga Tabakalerako Hezkuntza taldeko kideak Hik Hasi-ren Udako Topaketetan. Ikus-artearen inguruko hausnarketa, eztabaida eta ikasketa bultzatu nahi dute. Sintiririk daude arte-hezkuntzak eragina izan behar lukeela ikaslearengan, ikaskuntza-prozesu horrek pertsona mugiarazi behar lukeela, eta hasieran zuen ikuspegitik beste leku batean posizionatzera eramán.

Zer da ARTikertuz? Zein helbururekin sortu zen? Eta zein funtzio betetzen du orain?

Estibaliz Aberasturi-Apraiz: Irakasleen komunitate bat da ARTikertuz. Orain dela 3 urte eta erdi sortu zen, Hezkuntzako Fakultatean. Ikasle ohi batek baino gehiagok, jada lanean ari zirenek, jotzen zuten nigana arte-hezkuntza lantzeko laguntza behar zutela esanaz. Azkenean, bakoitzarekin banaka elkartu beharrean, egokiena komunitate bat sortzea izango zela iruditu zitzaidan. Aspalditik nerabilen ideia hori buruan, ikasketa-prozesuetarako taldean jardutea oso garrantzitsua delako. Izan ere, askotan irakasleak lanez gainezka daude, hitz egiteko espaziorik gabe, bata besteari entzuteko, ideiak partekatze eta hausnartzeko denborarik gabe.

Hortaz, ARTikertuzen xedeetako bat proposamenak partekatzea da. Horretarako daukagu Tabakalera. Hilero elkartzen gara Hezkuntza Fakultateko eta Tabakalerako zenbait kide

beste hainbat irakaslerekin hemengo erakusketa bat, artistaren bat edo proposamen artistikoren bat oinarri hartu eta gure eskoletan ikasleekin zer eta nola jorratu ahalko genukeen hausnartzeko. Era berean, hainbat ikastetxetan egiten dituzten proiektuak partekatze ere baliatzen dugu elkargune hau.

Andrea Arrizabalaga: Tabakalerari ere interesatzen zaio lan-taldea honetan parte hartzea. Hartu-emanerako espazio bat da. Guk pentsatzeko eta hausnarketak egiteko eremu bat eskaintzen dugu, alegia, hezkuntza arloan egiten diren praktiken gainean gogoeta egiteko gune bat: arte-hezkuntza nola lantzen den geletan, zer-nolako gauzak egiten diren, zein beste baliabide egon daitezkeen... Harreman hori aberasgarria da, guk eskoletako berri jasotzen dugulako, baina era berean, guk ere Tabakaleran hainbat erreminta eta baliabide ditugulako eskolentzako interesgarri izan daitezkeenak. Adibidez, hemen dauden erakusketekin lotuta proiektuak lantzeko, edo akaso Tabakaleran egonaldiak egiten ari den artistaren batekin edo besterekin elkartzeko. Finean, ezagutzak partekatzeaz ari gara.

ARTikertuz egitasmoan edozein irakasleak har dezake parte?

E.A.: Bai, irekia da. Interesa eta lana egiteko gogoia duen edonorentzat dago irekia. Baina, konpromisoa eta inplikazioa beharrezko dira. Izan ere, hona irakaslea ez dator zerbaít kontsumitzera. Hona parte hartzera eta egitera zatoz. Zergatik abiapuntu hori? Guk uste dugulako besteekin ikasten dugula; ezagutza ez dago-

ela zuregan edo niregan, baizik eta elkarrekin eraikitzen dugula ezagutza hori eta elkartruke horretan hartzen duela indarra jakintzak.

Era berean, iruditzen zaigu irakasleak segurtasuna behar duela, hitz egiteko lasaitasuna, konfiantza... galdu egin den autoritate hori berreskuratzeko. Eta *autoritatea* darabil, *autore* gisa ulertuta. Gure ustez irakaslea pentsatzen duen pertsona da, intelektuala, eta lan egiten badakiena. Hortaz, ARTikertuzek eskaintzen duen espazio hau irakasle horientzat deskantsurako eta arnasa hartzeko gune bat litzateke. Izan ere, abiapuntua artea da, baina funtsean pedagogiaren inguruan hitz egiten dugu, arteak zeharka gai pedagogikoak lantzen dituelako: artea lantzeko proiektu irekiak edo itxiak egin nahi ditugun, zer egin dezakegun gure ikastetxeko beste proiektu batzuekin arte-hezkuntza uztartzeko, gure ahotsak entzuten ez badira nola esku hartu, nola txerta dezakegun gure proposamen bat eskolako curriculumean zentzuduna izan dadin...

“Ikus-arte” nola definituko zenukete? Sarri, margoak, eskultura eta arkitektura baino ez ditugu buruan, baina hortik atera beharko ginateke kontzeptua ulertzeko, ezta?

E.A.: Galdera horrek ez dauka erantzun errazik, oso zaila baita definitu nahi ez dugun arlo bat definitzea. Zer gertatzen da artearekin eta arte proposamenekin? Bada, izena jartzen diozun eta definitzen duzun momentuan mugatu egiten duzula, itxi, akotatu... beste era batera esanda, hil. Eta helburua, justu kontrakoa da.

Edozein kasutan, nire ustez, ikus-

artea kulturarekin oso lotuta dago. Begirada sortzailea duen arloa da eta gaur egungo gaiak jorratzen ditu, proposamen artistikoen bidez, eta beti, gizartearen aurreko begirada kritiko batekin. Era berean, elkarrizketarako bidea irekitzen duen arloa litzateke. Gainera, zerikusia du sormen-prozesuarekin ere, eta zentzu horretan beste jauzi bat egitea eskatzen du ikus-arteak. Izan ere, pentsamendu kritikoa filosofiatik ere landu daiteke, baina sormen-prozesu baten bidez, hausnarketa egiteaz gainera, zerbait sortu behar dut. Beste hitz batzuetan esanda, gogoeta horrek akziora narama. Pieza bat edo akzio bat edo *performance* bat egiten baldin badut, horretan jada kognitiboki ere iruditzen zait beste salto bat ematen dela, beste inplikazio bat eskatzen duelako. Ikus-arte bada pentsatzeko bidea, baina horrekin batera parte-hartzea eta akzioa eskatzen duen zerbait da.

Hortaz, pentsatu bai, baina egin ere bai.

A.A.: Ikus-arte definitzerakoan eta

horrelako gauzak esaten ditugunean niri zalantzak sortzen zaizkit. Zeren akaso adar batzuk zintzilik utz ditzakegu. Sortzeaz ari garenean, berez, zertaz ari gara? Derrigorrez, zerbait sortu behar al da? Existitzen ez den zerbait egin behar al da sortu dugula esateko? Edo zerbait leku batetik bestera mugitzen dugunean, hor ere badago sorkuntza?

Nik azpimarratuko nukeena da ikus-arte pentsarazi egiten duen zerbait dela. Gaur egun, irudiaren bidez behin eta berriz esaten digute nolakoak izan behar dugun, zer jantzi behar dugun, zer kontsumitu, zer pentsatu, nola bizi... Eta, behintzat arteak beste era bateko ideiak ezagutzeko eta ezarrita dagoenarekin apur bat kritikozateko aukera ematen digu.

E.A.: Ikus-arteak eztabaidarako galderak planteatzen ditu, eta erantzun itxiak eman beharrean bide berriak irekitzen ditu, eta gainera, galdera batetik galdera berriak sortzeko aukera ematen du. Artean jada mugak ez daude hain definituta, eta horregatik da hain zaila ikus-arte definitzea.

Hezkuntza arloan, sormen-prozesua

entzutean eskulanak datozkigu burura, alegia, teknika eta material jakin batzuekin egiten diren lanak. Aldiz, guk sormen-prozesua deritzoguna akzioarekin, ekintzarekin lotzen dugu. Izan daiteke garrasi edo irrintzi bat egitea, pieza materialik egon ez arren, interbentzio bat dagoelako. Ez da erraza, baina muga horietan mugitzea bera ere oso interesgarria iruditzen zaigu.

A.A.: Eta aldi berean, interesgarria da baita ere kuestionatzea eta zalantzan jartzea egiten duzun hori: zertarako, zergatik, nola... probatzea, esperimentatzea... prozesu mota asko daude ikus-artearen barnean sar daitezkeenak, nahiz eta batzuetan inolako materializaziorik edo produktu finalik ez egon.

Kritiko izateko aukera aipatu duzue, baina horrez gain, zer ekarpen egin diezaioke arte-hezkuntzak XXI. mendeko ume edo gazte bati?

E.A.: Hezkuntzari dagokionez, niretzat garrantzitsua da kontuan izatea gaiak bere konplexutasun osoan lantzeko aukera ematen duela arte-



hezkuntzak. Gaur egun, normalean jakintzak ikasgaitan zatikatuta jorratzen ditugu, aldiz ikus-artearen gure lan egiteko proposatzen dugun moduak, ikaskuntza esparruak bere osotasunean hartzen ditu, hau da, heziketa holistikoago batez ariko ginatke.

Inguruan duen ikus-mundua interpretatzeko estrategiak lortzea izango litzateke xedea, beti ere, *interpretazio* hori prozesu bezala ulerturik. Esanahia ez dago artean edo ikus-kulturan. Esanahia irudiarekin dugun elkarriketa dago eta horrekin sortzen dugun harreman konplexuan: zenbait dokumentazio erabiliz, gaiaren inguruan ikertuz, etab.

A.A.: Horrez gain, esango nuke aukera ematen duela bestela estalpean edo ezkutuan geratzen diren zenbait gai azaleratzeko ere. Esate baterako, Tabakalerako azken erakusketa Itziar Okarizen *I never said umbrella* izan da. Genero ikuspegitik abiatuta gorputzaren gaia landu du. Gai hori, adibidez, nerabeek euren buruetan zuzenean bizi duten zerbait da, eta akaso, beste modu batera eurekin lantzea zaila izan daitekeena, ez daukagulako espaziorik eurekin horretaz hitz egiteko edo beste arrazoiren batengatik. Hortaz, nik uste dut arteak arreta jartzen duela bestela bazterrean geratzen diren hainbat auzitan, eta ondorioz, haur eta gazteekin horiek lantzeko aukera ematen duela. Gainera, gizarte mailan derri gorrez landu beharrean gauden gaiak dira horietako asko.

Askotan artea "apaintzeko" funtzioarekin edota "emozioak islatzearekin" lotzen dugu. Akaso, ezjakintasunetik. Eta hori bera transmititzen dugu eskoletan ere. Zein beste funtzio betetzen ditu arteak gaurko gizartearen? Eta gizartearen arteak betetzen dituen funtzioak aldatu badira, eskoletan ere lanketa aldatu beharko litzateke?

E.A.: Artea kobazuloetan bizi zen garaitik gizakiak behar izan duen zerbait da. Adierazpen premia beti sentitu izan du gizakiak. Hortaz, horrenbeste denboraz historian zehar presente egon den zerbait bada, ez dut ulertzen nola utz dezakegun gizakiaren alderdi hori bazterturik.

Ondorioz, esango nuke arteak ez daukala uneoro bere erabilgarritasuna justifikatzen aritzeko beharrik. Presentzia ematea besterik ez zaigu geratzen.

A.A.: Nire ustez, artea erabat espresioarekin eta apaingarritasunarekin lotzea gaur egun daukagun problematika baten erakusle da. Funtzio hori ere badauka arteak, baina kontuz ibili behar dugu. Izugarritzko mitoak eraiki dira eta hori da gure geletan ikusten duguna ere. Kontziente izan behar dugu balio espresiboarekin eta apaingarritasunarekin bakarrik geratzen bagara, gauza pila bat galtzen ditugula. Eta, nire ustez, arteak garai bakoitzean bere izateko arrazoi bat eta funtzio bat izan du, eta orain ere hori bilatzea eta horri erantzutea dagokigu.

E.A.: Jose Luis Brea arte kritikariak zioen artistak arte kritiko bat izan beharko lukeela, bestela ez duelako zentzurik izango artista horrek gure gizarterako. Nire uste ere argi dagoena da artearen azpian beti kezka bat dagoela, eta horretatik abiatuta problematika bat jorrazteko bidea egiten duela. Aldiz, adierazpenean bakarrik oinarritzeak esan nahi du espresionismo abstraktuaren eragina oraindik mantentzen dela eskolan. Eta jada 2018an gaude, bada garaia beste zentzu batekin lan egiteko.

A.A.: Artearen atzean dagoen iruditeria guztia ere zalantza jarri behar genuke. Artistaren figura nolako irudikatzen dugun, adibidez, aintzat hartzea interesgarria litzateke. *Artista* hitza entzunda, normalean gizonetako bat datorkigu burura, gehienetan margolaria, gizartearen bizi ez dena, apur bat inspirazioaren zain dagoena ideia handiak edukitzeko... Mito hori modernitatean gertatu zen eta jada lekuz kanpo egon beharko luke, baina ideia horiekin jarraitzen dugu. Beraz, artea espresibitatearekin lotzerako orduan oso kontuz ibili behar genuke, eta are gehiago ere bai: ideia horrek sortu duen iruditegia guztia zalantzan jarri.

Artista bohemioren figura hori dago oraindik. Eta horrek gelako jardunean oso eragin kaltegarria izan dezake. Batzuetan, eraman gaitzakeelako pentsatzera ikasleak berez barnean dakarrela artista sena

"Artearen bitartez lortu dezakeguna da ikasleak bere inguruko errealitatearekin konektatzea eta unean uneko problematiken inguruan gogoeta egitea".

"Artista bohemioren figura hori dago oraindik. Eta horrek gelako jardunean oso eragin kaltegarria izan dezake. Batzuetan, eraman gaitzakeelako pentsatzera ikasleak berez barnean dakarrela artista sena eta, bera bakarrik utzita, inspirazio jainkotiarrez egingo duela ez dakit zerenolako artelan".

"Gaiak bere konplexutasun osoan lantzeko aukera ematen du arte-hezkuntzak; gaur egun ohikoa den moduan jakintza zatikatu gabe".

eta, bera bakarrik utzita, inspirazio jainkotiarrez egingo duela ez dakit zer-nolako artelan.

Horri lotuta, hezkuntza-testuinguru batzuetan, artisten lanak edo ekoizpenak erabiltzea ez da egokitzat hartzen, ustez umeen berezko sormena -jaiotzetikoa- mugatu dezake-elako horrek.

E.A.: Bai, gaur egun zenbait eskolatan irudi guztiak eskolatik kentzea erabaki da, pentsatzen baita eragin negatiboa izan dezaketela irudi horiek ikaslearengan eta bere sormena eta barne espresioa bidera ditzaketela. Beraz, haurren berezko adierazpenari bidea egiteko erabaki dute ikaslea babestea irudietatik eta paretetan ezer ere ez jartzea.

Gu ez gatoz bat horrekin. Gure ustez egin beharko litzatekeena da haurra hezi begirada kritiko horretan, eta erremintak eskaini horretarako. Konponbidea ez da gauzak kentzea, baizik eta, gutxienez, dagoen horren gainean hitz egitea.

Beraz, beste era bateko ereduak ere eskaintzea garrantzitsua iruditzen zaizue zuei?

E.A.: Ereduak eskaini baino gehiago, dagoeneko dituzten eredu horiekin elkarrizketa sortu behar genuke.

A.A.: Gaur egun dauden eredu aurrean irakatsi behar litzaike iritzi pertsonal bat edukitzen edo begirada kritiko batekin ikusten. Baina bestetik, gizarteak eskaintzen ez dituen beste erreferente batzuen berri ere eman beharko genieke.

Izaera eraldatzailearena litzateke, hortaz, arte-hezkuntzak beteko lukeen beste funtzio bat?

E.A.: Bai, funtzio eraldatzailea ere badu arteak. Baina, hori arte-hezkuntzako proiektu batek berariaz ekarri beharko luke. Arteak eragina izan behar luke ikaslearengan, ikaskuntza-prozesu horrek pertsona mugiarazi behar luke, eta hasieran zuen ikuspegitik beste leku batean posizionatzera eramán. Hori da niretzat ikasketa-prozesua eta horretarako aukera ematen digu arte-hezkuntzak.

Autore batzuek defendatzen dute



gaur egungo munduan arteak hezkuntzan leku eta denbora gehiago izan beharko lukeela, egun bizitzeko ezinbesteko bihurtu diren pentsamendu dibergentea, irudimena...

garatzeko aukera paregabea eskaintzen duelako. Zein da zuen iritzia?

E.A.: Hezkuntzan artearen lanke-tarekin gertatzen dena oso kuriozosa da. DBHn jada oso normalizatu dago ikasgaia: oso akademikoak eta gidatuak dira edukiak. Baina Lehen Hezkuntzan ere denboran zehar bere horretan geratu da, izoztuta bezala. Hezkuntzan plastika sartu zenetik ez da ezer aldatu. Hasi dira modu kooperatiboan, proiektuka... lan egiten baina plastikak beste horietan landu

dena estetikoki apaintzeko soilik balio du. Berrikuntza prozesu gisara edota eraldaketa pedagogiko bezala ez da inoiz kontenplazten. Hortaz, horixe da nik hezkuntza komunitateari egiten diodan galdera: nola da posible berrikuntza prozesu bat egitea arte-hezkuntza kontuan hartu gabe? Eta beste horrenbeste gertatzen da zeharkako beste zenbait ikasgaiekin ere: musika, ikus-kultura, gorputz hezkuntza, dantza, antzerkia...

A.A.: Batetik, denbora oso eskasa eskaintzen zaio arte-hezkuntzari; eta bestetik, plastika edo arte-hezkuntza irakasten duten irakasleek ez daukate formazio berezirik. Alegia, ez dago espezialistarik hori irakasteko.

Tokatzen bazaio, irakasleak plastika eman beharko du eta kito. Eta, hain zuzen ere, horregatik ere sortu zen ARTikertuz, eskulanak egiteaz gain, arte-hezkuntza lantzeko zein beste alternatiba egon zitezkeen aztertzeko.

Informazio kantitate izugarri handia jasotzeko dugu gaur egun begietatik. Inork ez du zalantzan jartzen irudiek gero eta leku eta garrantzi handiagoa dutela gure bizitzan, komunikazio-tresna nagusienetakoak bihurtu direla. Errealitate horren aurrean zein ekarpen egin dezake ikus-arteak? Eta zein leku izan beharko luke hezkuntzan?

A.A.: Ezer baino lehen, ulertu behar dugu gure nortasuna bide horretatik ere eraikitzen dugula. Esnatzen garenetik lokartzen garen arte, egunero, irudiz inguratuta gaude, edozein eratako irudiz. Beraz, onartzen badugu horrek eragin handia duela gure nortasunaren formazioan, bada, hori kudeatzen ikasi beharko dugu. Konparazio baterako, testuak irakurtzen denok ikasten dugu, ezta? Liburu batean zer jartzen duen irakurtzeko gai denok gara, baina irudiekin ez da gauza bera gertatzen. Hortaz, batetik, saiatu behar genuke ulertzen nondik datorren irudi bat edo bestea, edota zergatik dauden irudi horiek leku jakin batean. Bestetik, berriz, mundu hori zabaltzeko ahalegina egin behar genuke. Ez dugu zertan beti ikusi publizitatean agertzen diren emakume estereotipatu horiek; edota, era berean, artea ere ez da beti izango [Andy] Warholl edo [Vasili] Kandinski. Gure ardurara da ikuspegia zabaltzea eta bestelako alternatibak ere eskaintzea, jakinik horrek eragina izango duela gutako bakoitzaren nortasunaren eraikuntzan. Azken finean, ezagutza handiagoa izango dugu eta kapazagoak izango gara mundua ulertzeko eta gure proposamen propioak egiteko.

E.A.: Nire ustez, ikus-kultura landu beharreko gai oso garrantzitsu bat da. Momentu honetan, ikus-kulturaren gaia arte plastikotik lantzen dugu, baina gaur egun teknologiarekin ere lotura handia du. Konfiguratu egiten gaituzte, hau da, gure identitateak eraiki egiten dituzte eta esaten digute

nolakoak izan behar dugun, zein de-sio izan behar ditugun, etab. Eta hori, hein handi batean, irudien bidez egiten da. Hortaz, irudi horiek helarazten dutenari aurre ez egitea eta irudi horiekin elkarrizketa kritikorik ez sortzea, alfabetizazio-prozesuan ildo bat landu gabe uztea dela iruditzen zait. Eta gure ikasleak egunero daude teknologiarekin eta horrek dakarren guztiarekin harremanean. Orain dela gutxi irakurri nion Joan Fontcuberta artista katalanari ia-ia beste hizkuntza baten pareko bilakatu dela irudia. Adibidez, batzuetan, whatsapp-ez ari garenean, ez dugu idatzi ere egiten; argazkia bidaltzen dugu eta besteak emotikono batekin erantzuten digu. Hori da uneotan bizi dugun errealtatea. Baina hezkuntzan horri bizkar eman zaio eta ez gara lantzen ari, hanka-motz gaude. Umeek kritikotasuna garatzeko ezinbestekoa da arlo bisualaren lanketa, bestela, biluzik uzten ditugu publizitatearen, merkatuaren... eta, oro har, sistemaren aurrean

A.A.: Eta garrantzitsua ez da soilik kontsumitzen dutena, baita eurek ekoizten dutena ere, selfieak ateratzen dituztenean, adibidez. Momentu honetan mundu hori guztia enpresen esku dago; enpresek jada erabaki dute arlo oso garrantzitsua dela eta horrekin jada merkatu bat sortu dute. Hori jorratu edo horri aurre egin ez diona hezkuntza da.

Hezkuntza arloan zer-nolako proposamen artistikoak egin beharko genituzke? Zein oinarritzko irizpide izan beharko genuke kontuan? Zuen ikastaroaren gaineko testuan diozue arte-hezkuntzaren didaktika hobetzeko aukera emango duzuela. Nola hobe daiteke arte-hezkuntzaren didaktika?

E.A.: Nire ikuspegia da horretarako elkarrekin egin beharko litzatekeela proiektuaren diseinua elkarrizketaren bitartez. Nire ustez, kontuan izan beharreko oinarri garrantzitsu bat da proiektu moduan planteatu beharko litzatekeela. Horrek esan nahi du ikasleari ez diozula soilik teknika bat erakusten eta bide bat egiteko esaten –adibidez, hau da [Joan] Miro, hemen daukazu margoak eta egin

"Gure ardurara da ikuspegia zabaltzea eta bestelako alternatibak ere eskaintzea, jakinik horrek eragina izango duela gutako bakoitzaren nortasunaren eraikuntzan"

hau edo hori—. Ez. Artistak jarraitu beharreko prozesua ez da teknika zehatz bat erreproduzitzea. Artistaren prozesua da gai bat pentsatzea, kezkatzen duen auzi baten inguruan gogoeta egitea. Hortaz, egin beharko genukeen lehendabiziko gauza da gai hori lantzea. Hasteko, gai horren inguruan ikertu beharko dugu, eta ondoren igaroko gara pentsatzera ea zerbait sortu nahi dugun, zer kontatu nahi dugun, zein den transmititu nahi dugun ideia eta hori nola gauzatuko dugun. Beraz, proposamen didaktiko konplexu batez ari gara hizketaz. Ez sinplifikatzeaz. Zeren bestela arriskua dago fitxa batean geratzeko.

A.A.: Hala ere, argi eduki behar dugu ez dagoela formula magikorik. Alegia, ez dago errezeta jakin bat arte-hezkuntzan gauzak ondo egiten ari garela adierazten diguna. Eta, bestalde, oso inportantea da kontuan izatea zein testuingurutan egiten dugun egiten duguna, zeren zuk gauza jakin bat egin dezakezu hemen eta orain zure taldearekin, baina horrek ez dizu agian balioko beste talde batekin beste testuinguru batean egiteko. Proiektuak planteatzean kontuan izan behar ditugu subjektibitateak, testuinguruak, etab.

EKARPENAK 1

ADIMEN EMOZIONALA HEZKUNTZAN

"Norbanako bakoitzak bere emozioak sortzen ditu, pentsamenduaren bidez"

Badirudi azken urte hauetan leku bat hartzen ari dela adimen emozionalaren kontzeptua eta emozioen garrantzia, eskoletan eta hezkuntzaren arloan. Gizartea aldatzen ari da, eta, horrekin batera, haurrak hezteko modua ere bai.

Gaur egun, hurrek zer behar duten kontuan hartzen saiatzen gara, bai eta zer sentitzen duten ere. Baina, haien beharrak eta emozioak gure itxaropenekin bat ez datozenean edota horiek gure sinismen kontra egiten dutenean, zailtasunak datoz, eta, orduan, ahal duguna ahal dugun hobekien egiten dugu.

Emozioen garrantziaz jabetzeko, ulertu beharra dugu bizitza honetan gure emozioek gidatzen gaituztela. Norbanako bakoitzak bere emozioak sortzen dituela jakin behar dugu.



Donna Apellaniz

Irakaslea
eta adimen
emozionalean
aditua

Nola? Pentsamenduaren bitartez.

Hitzaldi eta ikastaroetan hori adierazten dudanean, jende askok desadostasuna azaltzen du: "Nik sortzen baditut nire emozioak, gustuko ez ditudan emozioak ez ditut sortuko, ezta?". Ez, argi dago. Baina pixka bat konplexuagoa da gure funtzionamendua. Eta, orduan, nola izan daiteke guk geuk sortzea gure emozioak? Gure pentsamendu inkontzientek egiten duelako lan handiena.

Jaiotzen garenean, ezezaguna dugun mundu batean jaiotzen gara, eta mundu horrek nola funtzionatzen duen ikasten ari gara etengabe. Nola hitz egiten den; zer dagoen ondo, eta zer ez; zer egin daitekeen, eta zer ez; zeinekin izan behar ditugun harremanak eta nola... Milaka eta milaka gauza. Eskerrak haurrak garenean prest gauden ikasteko, gure osotasunean! Gure gorputza eta ikasketak osatzen ditugun heinean, osatzen doa gure burmuina ere.

Arreta jarriz gero, zenbat eta haur gazteagoa izan, orduan eta txikiagoa da haren hausnartzeko gaitasuna. Adinarekin batera gure burmuina garatzen doalako gertatzen da hori. Paul MacLean-en teoriaren arabera, hiru burmuin mota ditugu burmuinaren



barruan: *narrastien garuna edo garun primarioa* (funtzio primarioez arduratzen da: arnasketa, digestioa...), *linbikoa* (*emozionala* ere esaten zaio, emozioen funtzioez arduratzen baita: sentimenduak, harremanak...) eta neokortexa (pentsatzen duen burmuina, arrazoiaren funtzioez arduratzen dena: ikasketa, hizkuntza...).

Jaiotzen garenean, gure burmuin primarioa eta linbiko edo emozionala neokortexa baino aktiboago daude, biziraupena bermatzeko haurrak oinarrizko funtzioak bete ditzan: jan, lo egin, beldurra adierazi babestua izateko, eta abar. Denbora pasatu ahala, garatzen doa neokortexa, eta, pixkanaka, handitu egiten da haurraren arrazoitzeko gaitasuna.

Beraz, hurrekin arrazoitzeak, hausnartzeak eta era logiko hutsean aritzeak ez du helduekin duen eragin bera. Horrek ez du esan nahi gauzak azaldu behar ez dizkiegunik; esan nahi du, haiek hobeto ulertu eta zaindu nahi baditugu, haien mundu emozionalera hurbildu behar dugula. Haurrak emozioen bitartez mugitzen dira, eta guk lagundu egin behar diegu emozio horiek era osasuntsu eta ekologiko batean kudeatzen, kontuan hartuta haien bitartekari eta haien ingururako

zer den onena.

Horretarako, kontuan izan behar dugu jaiotzen garenean 100.000 milioi neurona ditugula, baina eskasak direla horien arteko konexioak. Hazten eta hezten goazen heinean, konexioak ugartzen doaz, eta esan dezakegu ikasketa bihurtzen dela konexio horietako bakoitza, zerbait berria ikasten dugunean neuronen arteko konexio berri bat sortzen baita. Beraz, gure bizitzaren lehenengo urteetan ikasten dugun guztia neuronen arteko konexio berri batekin sendotzen da. Horregatik, haurtzaroan ikasitako guztia *egiatzat* onartzen dugu, konturatu gabe oro har.

Prozesu hori bizitza guztian zehar gertatzen bada ere — hain zuzen ere, gauza berriak ikasteko aukera dugu hil arte—, jaiotzetik 7 urte bitartera, pertsonaren ikasketaren %90 gauzatzen dela esaten da. Gure sinesmenen % 90 garai horrekin dago lotuta. Horregatik, kontuan izan behar dugu haurrei zer ideia transmititzen dizkiegun, haiek hori *egiatzat* hartuko baitute. Are gehiago, ideia hori errepikakorra bada.

Gure ikasketa-prozesua hiru eratara gertatzen da. Lehenengo, errepikapenaren bitartez: zerbait zenbat eta

"Hurrekin arrazoitzeak, hausnartzeak eta era logiko hutsean aritzeak ez du helduekin duen eragin bera. Horrek ez du esan nahi gauzak azaldu behar ez dizkiegunik; esan nahi du, haiek hobeto zaindu nahi baditugu, haien mundu emozionalera hurbildu behar dugula"

"Jaiotzetik 7 urte bitartera, pertsonaren ikasketaren % 90 gauzatzen dela esaten da. Gure sinesmenen % 90 garai horrekin dago lotuta".



gehiagotan egin, sendoagoa izango da ikasketa. Bigarrenik, guretzat garrantzitsuak diren pertsonak, erreferenteek, egiten edo esaten duten horretatik edo direnagatik ere ikasten dugu: ereduaren bitartez. Eta hirugarrenik, zerbait gertatzen zaigunean eta horrek karga emozional handia duenean, grabatuta gelditzen zaigu automatikoki, ikasketa moduan. Adibidez, gidatzen goazelarik istripu bat izaten badugu eta guretzat emozionalki gogorra bada, berriz ere leku beretik pasatzean, istripuan bizi izan genituen emozio berak bizi ditzake gure gorputzak, edota gidatzeari beldurra har diezaiokegu, eta abar.

Horregatik, haurrek haserre handiak dituztenean edota emozioak indar handiz bizi dituztenean, egokia da horretaz hitz egitea une lasai eta goxo batean, une berean egoera era egokian ixteko, gertatu denarekin bakean eta lasai egoteko, emozio hori ulertu eta onartzeko.

Emozionalki zerbait konponduta ez dugunean, horrek ez digu uzten aurrera joaten; kateatuta gelditzen gara. Orduan, *tirita* bat jartzen diogu gure min emozionalari, eta aurrera goaz, normalean herrenka, ahal dugun moduan. Umeek ere horixe egiten dute, eta, aurrera jarraitzen badute ere, ez

da inoiz konponduko barruko gatazka hori, min horri ez badiogu behar duen arreta eskaintzen.

Haurrei emozioak ukatzen badizkiegu, haien mundua ukatzen ari gara, eta, halakoetan, zaila egingo zaigu haiek osotasunean ulertzea. Zer sentitzen duten, zer bizitzen duten jakitea eta haien jokabideak ulertzea zaila egingo zaigu, ekintza guztien atzean zergatik eta zertarako bat baitago. Ez badiegu emozioez hitz egiten, etxean edo eskolan ez badiugu emozioak azaltzen —geureak ere bai, heldu garen aldetik eredu izan behar baitugu—, haientzat ez dira existituko emozioak, eta haien mundu emozional guztia nahastuta geldituko da, argirik gabe, aipatzen ez dena ez baita existitzen.

Helduoi, batzuetan, beldurra ematen digu emozioez hitz egiteak. “Nola zaude?” galdetzen dugunean eta norbaitek triste, gogogabe, goibel edo etsita dagoela erantzuten digunean, damutu egiten gara galdetu izanaz askotan, ez baitakigu zer erantzun. Baina, maiz, ez dago erantzun beharrik, nahikoa da entzutearekin.

“Zer gertatu zaizu gaur eskolan?”, “nola sentitu zara hori bizitzeko?”, “hori ez zaizu gustatu, ezta?”... Haurrek milaka gauza bizi

dituzte egun bakoitzean, eta, horiekin batera, milaka emozio. Egia da oso boteretsuak direla eta, helduei ez bezala, “azkar” pasatzen zaiela, ahaztu egiten direla. Batzuetan, hala ematen du. Eta hala da batzuetan. Haurrak ez dira, helduok bezala, pentsamenduetan kateatuta gelditzen, eta, horregatik, erraztasun handiagoa dute egoera bati irtenbidea emateko. Beste batzuetan, haurrak mina edo bizipoza askatu behar izaten du, eta, horretarako, lagungarri izan ohi gara helduok. Entzunez eta alboan egonez soilik, lan handia egin dezakegu. Gero, zerbait behar ote duten galde diezaikegu, edota aholku edo kontseilu bat edo beste eman.

Haurren mundura hurbiltzeko, emozioen mundura hurbildu behar dugu berriz ere. Helduon arrazoitzeko joerak ez digu haurrekiko harremanetan laguntzen. Emozioak kudeatzeko tresnak eman nahi badizkiegu, lehenengo, guk eskuratu beharko ditugu, eta, horren ondoren, proposamena egin diezaikegu. Egia da, heldu gisa prozesu hori inoiz egin ez dugunean, zaila dela emozioez hitz egitea. Txikitan gure emozioez ez dugunean hitz egin eta landu ez ditugunean, nekez ezagutu, kudeatu eta adieraziko ditugu gure emozio propioak. Beraz,



umeen emozioen prozesuan laguntzea lan zaila da guretzat.

Nire iritziz, ezin da adimen emozionala transmititu, transmititzen duena ez bada emozionalki adimentsua. Eta emozionalki adimentsua izatea emozioak ezagutzea da (zer diren, zertarako sentitzen ditugun, hiztegi emozionala izatea), eta horiek kudeatzen jakitea, eta besteei era osasuntsuan transmititzea. Hasiera batean zaila badirudi ere, prozesuan hasten zarenean eta pixka bat harago begiratzen hasten zarenean, ate berri bat irekitzen da, eta handiak dira horrekin batera datozen onurak (adibidez, harremanetan).

Badaude denok erabil ditzakegun tresna batzuk hurrekin emozioen kudeaketa lantzeko: ipuinak, metaforak, mugimendua, arte-adierazpenak, musika... Egia esan, nola egin baldin badakigu, edozer izan daiteke lagungarria.

Ni nire kabuz hasi nintzen gai honen inguruan neure burua prestatzen. Danien Goleman-en *Emotional Intelligence* liburuarekin, Jaume Soler eta Mercè Conangla-ren *Ecología emocional* liburuarekin, Rebeca Wild-en liburuarekin eta beste hainbat liburutan irakurri nuenarekin, aldaketa handiak ikusten, sentitzen eta bizitzen hasi

nintzen. Askotariko ikasketak ere egin nituen, horien artean, Adimen Emozionala Hezkuntzan masterra egin nuen; eta, nire bizi-esperientziekin, nire emozioak ezagutzen, ulertzen eta onartzen joan nintzen. Urte asko eman nituen prozesu horretan, eta esan behar dut ez zela erraza izan, nahiz eta gerora bizitza honetan gertatu zaidan gauzarik baliotsuenera irazteko izan, niretzat, nire harremanetarako eta bai lanerako ere.

Gaur egun, informazio asko dago gaiaren inguruan, eta erraz irakur dezakegula uste dut, gaia pixka bat ezagutzeko behintzat. Nik ematen ditudan ikastaroetan, niri hain baliagarriak izan zaizkidan ikasketak horiek transmititzen ditut, era eroso, sinple eta oso batean, dakigun teoria guztia gure gorputzetik pasa dadin era praktikoa batean, ikasketak hori sendotzeko asmoz.

Nork bere emozioak ezagutzeko, barrura begiratu behar da, baina, kanpora hainbeste begiratzen duen gizarte honetan, ez da horren erraza barrura begiratzeko prozesua egitea, eta uste dut lagungarria izan daitekeela prozesu horretan norbait ondoan izatea, gidari moduan bada ere. Ez da prozesu zaila, baldin eta nola egin baldin badakizu.

“Haurrek haserre handiak dituztenean edota emozioak indar handiz bizi dituztenean, egokia da horretaz hitz egitea une lasai eta goxo batean, une berean egoera era egokian ixteko, gertatu denarekin bakean eta lasai egoteko, emozio hori ulertu eta onartzeko”

“Ez badiegu emozioez hitz egiten, etxean edo eskolan ez baditugu emozioak azaltzen –geureak ere bai, heldu garen aldetik eredu izan behar baitugu–, haintzat ez dira existituko emozioak, eta haien mundu emozional guztia nahastuta geldituko da, argirik gabe, aipatzen ez dena ez baita existitzen”

EKARPENAK 2

MATERIA ETA ENERGIA GAIAK LEHEN HEZKUNTZAN

Nola prestatu ditzakegu energiarekin eta materiarekin loturiko gaiak?

Hasteko, konpetentzien ikaskuntza zehaztu da; ondoren, irakaskuntzarako zenbait ideia handi azaldu dira, bai eta zenbait estrategia eta horietan gerta daitezkeen ikaskuntza-zailtasunak ere; eta, azkenik, horiek gainditzeko hainbat jarduera proposatu dira. Horietan guztietan, *Heziberriren* irakurketa irekia egin dugu, eta curriculum horren argiak, iluntasunak eta argi-itzalak zehaztu ditugu. Maisu-maistren hasierako prestakuntzarako (graduak) eta lanean aritzen diren profesionalentzat prestatu dugu hori guztia.

Gaur egun, materiaren eta energiaren ikaskuntza eta irakaskuntza egituratzeko lortu nahi diren konpetentziak proposatu behar ditugu, horietan oinarritzeko eta ikaskuntzarako bideak garbi izateko. Materiaren eta energiaren gaian, eta baita beste hainbat gaitan ere, konpetentzia hauek garatu behar dituzte ikasleek:

1. Ingurunea deskribatu, azaldu, han gertatzen dena arrazoitu, norik bere ideiak argumentatu, ideia nagusiak sintetizatu, interpretatu, azaldu eta gerta litezkeen gertaerak iragarri.
2. Arazo zientifikoak identifikatu.
3. Ikerketak diseinatu eta garatu.
4. Problema zientifikoaren ebazpenarako trebetasunak eta jarrerak balioetsi, erabili, ebidentziak lortu eta arduratsuak izan.
5. Ikuspegi kritikoa izan.
6. Talde-lanetan aritzeko autonomia garatu.
7. Erabakiak hartu.
8. Jakintza zientifikoa erabili testuinguru pertsonal eta sozialetan.
9. Ingurune osagai eta prozesuak eta jarduera praktikoen emaitzak jakintza zientifikoekin erlazionatu, eta edukien arteko loturak eraiki.
10. Gizakiek ingurunean sortzen dituzten aldaketak aztertu, eta neurriak hartu, bizitza hobetze-

ko eta ingurunea zaintzeko eta hobetzeko.

Lehen konpetentzia ezaguera zientifikoarekin dago lotuta; horixe hartu behar da ardaztat, eta horixe da gaiari dagokion konpetentzia zehatza ere. Ondoren, alderdi metodologikoa dator, hau da, interpretazioa egiteko Naturaren Zientzien ikuspegitik nola planteatu behar diren jarduerak (2., 3. eta 4. konpetentziak nagusiki). 5.a, 6.a eta 7.a norberari eta talde-lanari dagozkion konpetentziak dira (hasieran banaka eta ondoren talde-lanean lortu behar dira). Azkenik 8., 9. eta 10. konpetentziak daude.

Materia eta energia ikastearekin eta irakastearekin lotutako ideia handiak


Hauek dira arestian aipatu ditugun konpetentzietan oinarrituta materia eta energia irakasterakoan eta ikasterakoan kontuan hartu beharreko ideia handiak:

- Naturan dagoena eta gertatzen dena interpretatzean eskola-zientziari dagozkion eredu zientifikoaren erakuntzak izan behar luke ardatz ikaskuntzan eta irakaskuntzan. Horretarako, edukiak landu behar dira ikasgelan (kontzeptuzkoak, jarrerazkoak eta prozedurazkoak konbinatu behar dira), eta metodologia egokiak erabili behar dira (1. konpetentziarekin du



Hector Morillas Loroño, Ana Zuzuarregi Olasagasti eta Jose Maria Etxabe Urbieta.
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea. Matematika eta Zientzia Esperimentalen Didaktika Saila.

- lotura estuena).
- Bestalde, lehen aipatutako hamar kompetentzia horietatik garrantzitsuenak pentsamendua eta metakognizio-errutinen lanketa lirateke. Era berean, nor bere ikaskuntzak erregula ditzan lortu behar du. Zeharkako ikuspegi-tik ulertu behar da ideia hori, kompetentzia horiekin guztiekin baitago lotuta. Abstrakzio-, arrazoiketa- eta argudiatze-maila handiagoak garatu behar dira (kompetentzia guztiekin du lotura).
- Haurrak zientziara hurbildu behar ditugu, bai eta zientziarekin lotutako ideietara eta horien eraikuntzan dauden ezaugarrietara ere (1., 2., 3. eta 4. kompetentziekin du lotura).
- Era berean, zientzian erabiltzen den metodologiara ere hurbildu behar ditugu ikasleak. Bide horri jarraituz problemak edo iker daitezkeen egoerak identifikatzea izan daiteke aukerarik aproposena. Hortik abiatuta, ikasleek proiektuak gara ditzakete, lantegiak edo erakusketak antola ditzakete, edota arazoak ebatz ditzakete. Modu horretan, ezagutzak gehiegi zatikatzea ekiditen da (2., 3. eta 4. kompetentziekin du loturarik handiena).
- Historian zehar emakumeek nahiz gizonek egindako ekarpenak landu behar dira, modu orekatuan. Horretarako, jarduerak hainbat testuingurutan planteatu behar dira (kompetentzia guztiekin du lotura, eta zeharka landu beharko litzateke).
- Balioak lantzea ere garrantzitsua da, adibidez pertsonen garapenerako eta bizi-kalitatea hobetzeko garrantzitsuak izan diren ideiak balioesteko (6., 8., 9. eta 10. kompetentziekin du loturarik handiena).
- Askotariko baliabideak erabil daitezke, ohikoak zein digitalak (kompetentzia guztiekin du lotura, eta zeharka landu beharko litzateke).
- Interesgarria litzateke, baita ere, norberaren intereseko nahiz gizartearen intereseko gaiak jorratzea, ingurumena, osasuna eta teknologien erabileren analisia eta balioespena, nagusiki. Ikerlanetan zereginak planifikatzean, aztertzean eta egitean, interesa eta motibazioa duten gaiak proposatu eta landu behar dira (8., 9. eta 10. kompetentziekin du loturarik handiena).
- Edukiak espiral moduan lantzea da aproposena. Eduki-multzo bakoitzerako, hurbilketarako bide desberdinak landu behar dira, espiral moduko curriculum-antolakuntza garatuz. Edukien ikaskuntza adierazgarria bultzatu behar da, eta horretarako teknikak erabili behar dira, kontzeptuen mapak (1., 2., 3. eta 4. kompetentziekin estuki lotuta dago).
- Jarduerak diseinatzerakoan, ikasleek aurretiko ezaguerak proposatzea bultzatu behar da (kompetentzia guztiekin du zerikusia).
- Materia eta energia lantzean, emozioen kudeaketan sakondu behar da (kompetentzia guztiekin du zerikusia).
- Hainbat gogoeta- eta hausnar-



keta-maila garatu behar dira (konpetentzia guztiekin du zerikusia).

- Jakin-mina eta ikasteko interesa pizten dituzten arazoak planteatu behar dira, materiaren eta energiaren gaien (konpetentzia guztiekin du zerikusia).
- Lankidetzan egiteko lanak planteatu behar dira, eta jarrera positiboak garatu behar dira lan horietan (nagusiki, 6. konpetentziarekin dago lotuta).
- Jardueretan nor bere buruarekiko, besteekiko, naturarekiko, lan zientifikoarekiko eta gizartean duen garrantziarekiko begirunez, zaintzeko jarreraz eta erantzukizunez joka dezan saiatuko gara (8., 9. eta 10. konpetentziekin du loturarik estuena).
- Zehar-lerroak landu behar dira, proiektuak, lantegiak eta sekuentzia didaktikoak garatzean: hezkidetzan, informazioa bilatzea eta kudeatzea ikaskuntzaren eta ezagutzaren teknologia erabiliz, garapenerako hezkuntza, kontsumorako hezkuntza, osasunerako hezkuntza, bide-hezkuntza eta landu daitezkeen beste hainbat (konpetentzia guztiekin du lotura).

- Sormena eta pentsamendu ideia-sortzailea garatu behar dira (konpetentzia guztiekin du lotura).
- Ikasleen arteko eta ikasleen eta irakasleen arteko harremanetarako komunikazio-gaitasunak garatu behar dira (konpetentzia guztiekin du lotura).

Oinarrizko curriculum-diseinuan ditugun edukiak, eta horien ikaskuntzarako zailtasunak. Ikasleen aurretiko ezaguerak.

Heziberri curriculumean, eduki komunek helburuen formulazioa dute; taldekatzea, ordenatzea eta konpetentziekin loturak zehaztea falta da, eta hainbat hutsune ageri dira. Ez da nahikoa, ez eta baliagarria ere, maisu-maistrentzat, ez baita adierazten jarrekin, prozedurekin eta kontzeptuekin duten lotura. Formulazio sinpleagoa proposatzen dugu:

I. Agertzen diren edukiak ezagutzaren komunikazioarekin daude lotuta nagusiki, hala nola informazioaren identifikazioarekin, lorpenarekin, antolaketarekin, berreskuratzearekin, ebaluazioarekin, konparazioarekin, sailkatzearekin, sekuentziarioarekin, azterketarekin, laburbiltzearekin, deskripzioarekin, azalpenarekin,

definizioarekin, sintesiarekin, balioespenarekin, adierazpenarekin (argudioen azalpena, arrazioen proposamena, etab.), berri ematearekin, komunikazioa lantzearekin eta txostenak egitearekin. Atal horretan txertatuko lirateke tresna digitalak eta Internet erabiltzeko irizpideak eta jarraibideak, informazioa bilatzeko eta aukeratzeko, lanak egiteko, prozesuen simulazioa egiteko eta ondorioak ateratzeko.

II. Horrez gain, lotuta daude ideien sormenarekin, hautaketarekin, adierazpenarekin, planifikazioarekin, bideragarritasun-azterketarekin, doitzeko proposamenekin, lanen eta horien emaitzen ebaluazioarekin, hobekuntza-proposamenen azterketarekin eta zereginen eta proiektuen planifikazioarekin.

III. Beste eduki multzo batek zerikusia du harremanekin (enpatia eta asertibitatea), talde-lanetan laguntzeko jarrera eta elkarlanarekiko jarrera positiboa izatearekin, eskubide eta konbentzioekiko errespetuarekin, eta gatazken kudeaketarekin.

IV. Beste eduki batzuek norberaren erregulazioarekin dute zerikusia (gorputza, emozioak eta alderdi kognitiboak).

V. Era berean, lan zientifikoarekin ere zerikusia dute: problemak ebaz-



teko metodologiarekin, lan zientifikoarekin lotutako ohiturekin eta jarrerekin (zehaztasuna eta zorroztasuna, jarrera arduratsua eta aktiboa, eta beste batzuk), material sinpleak erabiltzeko prozedurekin eta jarraibideekin, laborategian eta landa-lanetan portaera-, lan- eta segurtasun-arauak betetzearekin, etab.).

VI. Halaber, arlo honetako beste eduki multzoek eguneroko bizitzarekin dute zerikusia (jarrera arduratsua, ingurumena hobetzeko jarduerak garatzeko estrategiak, etab.).

VII. Zientzian jarduten duten pertsonen ikuspegi estereotipatua gainditzeko estrategiak eta aurrerapenak nahiz bizi-baldintzak hobetzearekin dute lotura.

Materiaren eta energiaren gairako Heziberri curriculumeko eduki jakinen zailtasunak zikloz ziklo. Ikasleen aurretiko ezaguerak

1. ZIKLOAN:

- Ez dituzte bereizten objektuak eta materialak. Erabilera ere landu behar da.
- Ez dituzte bereizten masa eta pisua.
- Egoera fisikoak landu daitezke, baina gasak eta horien ezaugarriak

rriak identifikatzeak zailtasunak ditu ikasleentzat. Zailtasunak dituzte materiaren kontserbazioa ulertzeko, eta, horren ondorioz, ez dute kontserbazio moduan ulertzen egoera-aldaketetan gertatzen dena.

- Solidoen eta likidoen bolumena, kolorea, testura, usaina, plastiktasuna, forma eta magnetismoa gasenak baino errazago bereizten dituzte. Gas-egoera lantzea konplexuagoa da ikasleentzat.
- Jarrerak ulertzeko, ezaguerak barneratuta izan behar dituzte ikasleek. Jarraibideekin soilik, ez dituzte ekintzak ulertzen.
- Halaber, materialen propietateak aztertzean, irizpideak eta jarraibideak ulertzeko, ezaguerak sakonki adierazi behar dituzte. Adierazkortasuna lortzeko, egiten dutena zergatik egiten duten identifikatu behar dute. Arazoak identifikatzen dituzte, baina egoera problematikoak lausoegiak izan daitezke ikasleentzat. Egokiena haiek proposatzea litzateke. Ikasleek diote arazoak mugatua izan behar duela; askotan, nahiago dituzte arazo itxiagoak, soluzio bakarrekoak eta ebazpen-prozesu

bakarrekoak.

- Bestalde, zailtasunak dituzte arazoei dagozkien aldagaiak bereizteko, bai aldagai diskretuak, bai jarraituak, bai askeak, bai menpekoak.
- Arazoak sakontzean, ez dituzte ongi bereizten beharrezkoa den informazioa eta lortu behar diren datuak. Funtsezkoa da metakognizioa eta komunikazioa lantzea; hau da, lehendabizi, pentsatu eta idatzi egin behar da.
- Materiaren ezaugarriak lantzean egoera ez-dinamikoak ageri direnean, oso konplexua da ikasleentzat aldagaiak identifikatzea.

2. ZIKLOAN:

- Gai dira gorputz baten masa eta bolumena neurtzeko 1. ziklotik, baina, 2. zikloan, zaila egiten zaie ikasleei dentsitatea edo kontzentrazioa lantzea eta bereiztea. Flotagarritasuna ulertzea oso konplexua da, indarrek eragiten baitute, baina baita substantzien ezaugarri bereziek ere. Oso konplexua da magnitude intentsiboen erabilera.
- Hainbat kasutan, zaila izaten da nahaste homogeenak eta heterogeenak ulertzea, berei-

EKARPENAK 2: MATERIA ETA ENERGIA GAIAK LEHEN HEZKUNTZAN

ziki, pertzepzioaren bidez edo zentzumenekin hautematen dugunarekin bat ez datorrenean. Disoluzioen izaera ulertzeak zailtasuna du, eta *disolbagarritasun* kontzeptua ere nahasgarria izaten da askotan. Osagaiak bereizteko esperimendu-teknikak ezaugarri bereziekin erlazionatzea zaila da ikasleentzat. Diszilazioa, iragazketa, lurrunketa eta beste teknika batzuk nahaste homogeenekin eta heterogeenekin lotu behar dira.

- Erreakzio kimikoak (besteak beste, errekuntza, oxidazioa eta hartzidura) gertatzen diren esperimenduak egiteko irizpideak eta jarraibideak.

Energia

1. ZIKLOAN:

- *Energia* kontzeptua erabili arren, abstraktuegia egiten zaie. Nahastu egiten dituzte energia motak eta energia-iturriak. Energia-iturriak norberaren eguneroko jarduerekin erlazionatzea zaila izaten da askotan. Horren ondorioz, erabilera eta kontsumoa murriztuz arazo gutxiago sortzea ez dute lotzen ingurumenarekin. Ez dira ohartzen nondik datorren Euskal Herrian erabiltzen dugun energia. Zaila egiten zaie jarrera pertsonalak izatea eta globalki pentsatzea.
- Soinua eta argia lantzean, izaera materialarekin identifikatzen dute. Oso zaila egiten zaie elkarrekintzak direla barneratzea. Horren ondorioz, ez dute ulertzen elkarrekintza horien hedapena, eta itzalen eraketa ere konplexuegia izan daiteke (kausak eta efektuak nahastu egiten dituzte). Oso zaila da argi-itzalen eraketa ulertzea.
- Ereduak erabiltzea abstraktuegia da, eta eredu korpuskularra inuitiboagoa da argiaren kasuan.
- Errefrakzioa ez dute abiadura-aldaketarekin erlazionatzen.
- Filmen eragina soinuaren hedapenean: soinua hutsean hedatzen dela pentsatzen dute. Soinuaren hedapena ez dute ongi barnera-

tzen.

- Ez dute ulertzen soinuaren hedapenean masa hedatzen ez denik.

2. ZIKLOAN:

- Energia-iturriak eta energia motak nahasten dituzte. Ez zaie erraza egiten energia berriztagarriak eta berriztaezinak bereiztea, abstraktua baita denboraren pertzepzioa (mende batzuk bereizten dituzte 2. zikloan).
- Ez dituzte bereizten energia eta indarra kontzeptuak.
- Energia lan mekanikoa sortzeko gaitasuna dela soilik uste dute.
- Energia modu batera erabiltzen dute bizidunekin, eta, bizigabeekin, beste esanahi bat ematen diote.
- Sistemak ditugun substantzien ezaugarria dela diote (irabazi egiten dela, edo galdu, edo aldatu, edo xahutu...). Izaera substantziatzailea du ikasleentzat.
- *Energiaren kontserbazio* eta *energiaren transferentzia* kontzeptuak nahastu egiten dituzte.
- Ez dituzte ongi bereizten energiaren transferentzia-prozesu guztiak.
- Curriculumean bezala, energia mekanikoa, argi-energia, soinu-energia, energia elektrikoa, energia termikoa eta energia kimikoa daudela uste dute. Ez da horrela: mugimenduari dagokiona dugu, eta energia potentziala.
- Indar bat edo indar bat baino gehiago aplikatzeak dituen eraginak hautemateko zailtasunak dituzte ikasleek.
- Elektrizitateari dagokionez, sorgailutik edo pilatik ateratzen den isurkaria dela diote. Potentzial-diferentzia eta intentsitatea nahasten dituzte. Erresistentzia aurka dagoen zerbait dela diote (ikuspegi antropozentrikoa erabiltzen dute ikasleek). Korronte alternoa imajinatzea oso konplexua da ikasleentzat; beraz, nahastu egiten dituzte jarraitua eta alternoa.
- Fenomeno elektriko batzuk eta haien ondorioak (argia eta beroa) aztertzeak zailtasuna du: eguneroko hizkuntzarekin nahasten

dute.

- Isurkariaren kasuan bezala beroa eman, irabazi, mugitu, eta abar egiten dela uste dutenez, nahastu egiten dituzte *beroa* eta *temperatura* kontzeptuak (askotan, komunikabideen erabilera okerraren erruz). Ikuspegi substantziatzailea dute, eta ez dute interpretatzen aldaketa gisa. Egoera aldaketak ez dituzte ongi interpretatzen, eta ez dituzte identifikatzen fase-aldaketaren eragileak.
- Magnetismoa elektrizitate gisa ulertzen dute. Ipar poloak eta hego poloak, karga positiboak eta negatiboak dagokienez, portaera bera dutela uste dute.
- Indarrari dagokionez, izaera antropomorfitzat (muskularra) hartzen dute (gutxiago egiten dela, edo nekea sortzen dela, eta objektuen ezaugarria dela). Zailtasunak dituzte indarrak bereizteko. Adibidez, marruskadura-indarraren garrantzia gutxiesten dute (antropozentrismoa aplikatzen dute, adibidez, "maltzurra" dela adieraziz), eta mugimenduari lotzen dute soilik. Indarra eta abiadura nahasten dituzte, eta uste dute testuinguruarekiko aldakorra dela.
- Arazoak dituzten Newtonen lehen legearekin eta hirugarren legearekin, ikuspegi kausala aplikatzean linealki aplikatzen baitute.

Proposatzen diren jarduerak

1. Ikerketa zientifikoak Lehen Hezkuntzan. Aztertu eta ikerketa bat garatu.
2. Energia. Motak. Lehen Hezkuntzan energia lantzeko esperimenduak: energia zinetikoa eta energia potentziala (elektrikoa, grabitatorioa), eta energiaren transferentzia.
3. Materia. Lehen Hezkuntzan energia lantzeko esperimenduak: dentsitatea kalkulatu, banantzeak (kristalizazioa, kromatografia eta beste batzuk), erreakzio kimikoak (hartzidura, urrezko euria, elektrolisia, errekuntza).

Hazi Hezi

HAZIERA ETA HEZIKETA ALDIZKARIA 24. BERRAZARREN 11

Hazi Hezi



LAGA: Aritasun arduratsua

ELKARRIKETA - ZIBIKAZI BARRUTIA
"Zaintza lana ordezkatzeko ari da merkabua"

IKASLEAK
Ines Osinaga: "Zaintza da gure iraultza!"

LAGA: Epizentrotik ertzera

ELKARRIKETA - HEZIKETA BARRUTIA
"Presarik gabe, untearen erantzukeraren zain egoten ikasi dut"

IKASLEAK
Bizioren eskola: ametsen begirada



HAZIERA ETA HEZIKETA ALDIZKARIA

Hazi Hezi

haziera eta heziketa
aldizkaria
www.hikhasi.eus




EKARPENAK 3

WILHELM VON HUMBOLDT

Hezkuntza, hizkuntza eta Euskal Herria

1 Euskal Herrira etorritako bidaiari klasikoaren artean, seguruenik, “euskaldunen adiskide” gisa ezaugarritu izan den Wilhelm von Humboldt (1767-1835) prusiarra da ezagunenetakoa bat, bai, baina zergatik etorri zen hona? Eta zer ikasi zuen hemen? Hasteko, baina, argitu dezagun nortaz ari garen: gure autorea –Alexander naturalistaren anaia nagusia– humanista bat da ezeren aurretik, eta, alde horretatik, hezkuntzari buruzko ekarpen antropologiko-filosofiko sakonak utzi dizkigu. Humboldt, bestela, dezente engaiatzen da politikan –bai hausnarketa teorikoak eginez bai jarduera praktikoetan inplikatur– eta bera da adibidez Berlingo lehen unibertsitatearen sortzailea. Hizkuntza, azkenik, bere aztergai kuttunena da –bereziki Euskal Herrian egon eta gero–, eta horri buruzko bere saiakera filosofiko eta linguistikoak oso aberatsak dira. Humboldt, beraz, kultura eta prestigio handiko pertsona da eta, horregatik bakarrik ere, bada harritzekoa horrelako norbait –1800. urte inguruan– birritan euskaldunak ezagutzera etorri izana. Baina berea ez da etortzea bakarrik, ez, berak horiei eta horien hizkuntzari buruzko informazio asko jasotzen du, eta, egiaz, hurrengo hogeitau urteetan behin eta berriro hartzen eta lantzen ditu bildutako euskal materialak. Humboldtten euskal interesa, finean, marko teoriko zabalago batean koka-



**Iñaki Zabaleta
Gorrotzategi**

**EHUko Filosofia
Saileko irakaslea**

tzen da –hor bakarrik aurkitzen dute erantzuna hasierako galderek– eta horren azalpenak soilik erakutsiko digu zergatik den bere pentsamendua aktuala oraindik ere euskaldunontzat.

2 Euskal Herrira etorri aurretik Humboldt murgilduta dago hezkuntzaren teoria propio baten lanketan eta –ohiko planteamendu ilustratuen aurrean– hasieratik du garbi, giza garapenari dagokionez, prozesua garrantzitsua goa dela emaitza baino. Kontua da, funtsean, gizakia ez dela entelekia abstraktu bat edo zientifikoki guztiz ezagutu daitekeen zerbait, aldiz, gizakia soilik banako ezberdinetan da errealia eta, benetan, horietako bakoitzak modu pertsonalean gauzatzen du bere izaera. Horregatik guztiagatik, bada, Humboldttek giza aniztasuna hartzen du bere ikerketa antropologikoen abiapuntu eta –diferentziak positiboki baloratuz– banakoaren arteko konparazioan oinarritutako egitasmo humanistiko bat burutzeko beharra ikusten du. Giza espresio ezberdinak zuzenean behatuz eta elkarrekiko erlazioan aztertuz, posible izango da bakoitzaren egoera errealia hobeto ezagutzera –berau zer den eta zer ez zehaztuz– bai eta beraren garapenerako aukerak irekitzea ere–xede berriak irudikatuz–. Baina bestela ere Humboldttek garbi du banakoa ez dela besterik gabe bestelakoekin bat egiten duen irla isolatu bat, ez,



Wilhelm von Humboldt.

berak badaki berau berez dela soziala eta bere izaera erreferentziako talde baten baitan edo talde batekiko erlazioan osatzen duela. Talde hauxe da berak herri edo nazio gisa ezaugarritzen duena eta, era bateko edo besteko gorabehera politikoen gainetik, beraren oinarrizko izaera historiko-kulturalaz hitz egiten du eta, modu metaforiko batean, baita beraren izaera naturalaz ere. Giza-banakoa ez da ezer giza-talderik gabe, ez bere osaketan ez bere garapenean, eta horrexegatik ikusten ditu Humboldt-ek elkarrizketak lotuta eta elkarrekiko eraginean banakoaren hezkuntza eta nazioaren hezkuntza. Nazioengana bere interesa, beraz, gizakiaren aniztasun kolektiboa baloratzen duen bere antropologiatik jaiotzen da eta, horren baitan, nazio ezberdinak bisitatze eta horien arteko konparazioak egiteko plana osatzen du.

Hemendik abiatzen da euskaldunekiko Humboldt-ek interesa –horiek finean bere ikerketen “objektu oso interesgarria” osatzen dute– eta hortik soilik uler daiteke zergatik berak, Parisen bizi den garaian, Euskal Herrira etortzea erabakitzen duen. Lehen aldian, 1799ko udazkenean, gure herria zortzi egunez zeharkatu baino ez du egiten. Egonaldi labur hau, egiaz, Espainiarako bidaia luze baten parte da. Hain zuzen ere, familia guztiarekin egiten duen eta guztira zazpi hilabete luze irauten duen bidaia batena. Estreineko kontaktua horrek, baina, izugarri handitzen du Humboldt-ek jakin-mina eta, 1801eko udaberrian, familiarik gabe eta modu eskusibo batean, Euskal Herrira itzultzea erabakitzen du bertan hilabete pasatxo eginez. Bere helburu esplizitua hegoaldeko zein iparraldeko euskal probintzia denak

bisitatzea da –berak muga politiko ororen aurretiko euskaldunen herriari berari erreparatu nahi dio– eta horrela euskaldunen bizitza eta hizkuntza zuzenean ezagutu. Humboldt-ek bere osotasunean hartuta kontsideratu nahi ditu euskaldunak, alegia, berak horien talde izaera ulertu nahi du –egun ere identitate kolektiboaz dihardugu– eta finean euskaldunen herria nazio gisa ezaugarritu edo irudikatu nahi du. Bada, egiteko horretan euskara da Humboldt-ek bidaietan “atentzio puntu nagusia” –horren berezitasun linguistikoak, gogora dezagun, aspaldi piztu zuen bere arreta– eta herrian bertan, jada aipatutako moduan, gero landuko duen horri buruzko informazioa eta materiala biltzen du. Garbi dago, beraz, bera ez datorrela Euskal Herrira kasualitate batez edo turista gisa, ez, bera nazio bati buruzko landa-lan bat egitera dator eta, horren bitartez, gizadiaren inguruko bere hausnarketa orokorrak aberastera. Humboldt-ek bidaietan testuetan, ohar etnografiko asko aurkitzen ditugu, esaterako, euskaldunen fisionomiari eta haien ingurune naturalari buruzkoak, euskaldunen errealitate eta historia politikoari buruzkoak, bai eta euskaldunen kultura herrikoari buruzkoak.

Hezkuntzaren ikuspuntutik esanahi berezia dute euskal kulturari buruzko oharrek eta, zentzu horretan, azpimarratzekoa da Humboldt-ek hezkuntza eta kultura, egiaz, formazio edo humanizazio gisa ulertzen duen *Bildung* kontzeptuarekin hestu lotzen dituela. Gizakia kulturaren islatzen da eta kulturak gizakiaren berri ematen digu –bera izan den, orain den eta izan nahi duen horren berri– baina giza kultura ez da banakoaren ekarpenen bilduma hutsa, baizik eta baita herriaren talde bizitzaren gauzatze gunea ere. Bere bidaietan, zehazki, Humboldt-ek arretaz behatzen ditu euskaldunen espresio kultural ezberdinak –nekazaritza eta arrantza bezalako lanbideak edota pilota eta dantza bezalako aisialdiak– horietan antzeman baitaiteke haien talde dinamika. Aldi berean kontsideratzen ditu, halaber, herri sentimenduarekin edota herri karakterearekin loturiko beste kontuak eta –bertako eskola formazioa eskasa ikusita ere– eus-

EKARPENAK 3: WILHELM VON HUMBOLDT

kaldunek propioki garatutako herri ilustrazio bat antzematen du. Bada, honen arrazoia ematerakoan Humboldttek euskaldunen “erabateko berdintasun” edo “koparetasun orokor” hura aipatzen du, bere ustez, horrek ahalbidetu baitu bistakoa duen behe eta goi mailakoen arteko ezohiko harreman oparoa. Eta horrek bakarrik ere –gehiago sakondu gabe– hezkuntzari buruzko printzipio orokor bat irakasten dio, hots, benetako giza formazioa ez dela herriaren azpitalde baten monopolioa, baizik eta herri osoaren ekintza eta ardura dela. Humboldttek bazekien gizakiaren formazioak ekoizpen akademiko, literario, zientifiko eta filosofikoak behar dituela, bai, baina orain –Euskal Herrian ikusitakoak ikusita– badaki, baita ere, formazio horrek ezin duela herriaren formazio “natural” xumea ordezkatu. Bukatzeko azpimarra dezagun honakoa: geroxeago, eta prusiar hezkuntza ministro gisa, “herriaren hezkuntza” edo “klase sozial baxuentzako udal-eskolen eraketa” bultzatuko du, hain zuzen, “herri formazioa, egiaz, formazio ooren oinarria delako”.

3 Euskal Herrira egindako bidaiek, bestela, garrantzi handieneko eragina dute Humboldtten pentsamendu antropologikoaren garapenean, hain zuzen, euskararekin topo egiten duenetik berak oro har geroz eta garrantzi handiagoa ematen diolako hizkuntzari. 1797an Parisera joan aurretik ere, preseski, gizakiaren dimentsio unibertsala eta singularra edota beraren izaera erreala eta potentziala –bai maila indibidualen bai maila kolektiboan– batera kontsideratzen lagunduko dion “zerbaiten bila” dabil. Humboldttek abiapuntu eta helburu humanistiko batetik garatu nahi du bere antropologia –gizakia ez da soilik oraino dena, aldiz, bada ere oraindik ez dena– eta horrexegatik giza talde guzti horiek artikulatu eta lotu ahal izango dituen elementu bat behar du. Hauxe da berak Euskal Herrian aurkitzen duena, hizkuntza, eta hemendik aurrera bere antropologiak ageriko orientazio linguistikoa bat hartzen du, hain zuzen, garbi



Berlingo Humboldt Unibertsitatea.

ikusten duelako gizakia aztertzeo hizkuntzari erreparatu behar zaiola. Baina zergatik ohartzen da Humboldt horretaz gure artean? Esan dezakegu, labur-labur, berak hemen hizkuntzaren esperientzia berri bat duela –besteak baino oinarritzakoago den bat– euskara ez duelako liburuetan aurkitzen, baizik eta “herriaren ahoan”. Eta berak zuzenean izandako bizipen honek, hala, aukera ematen dio hizkuntzari buruz orokorrean hausnartzeko eta –garaiko aurreiritzi askoren kontra– hizkuntzaren berezko eta funtsezko balore antropologikoa guztiz antzemateko. Gure ikuspuntutik zoritxar moduan ikus daitekeena –euskararen idatzizko lanketaren falta– Humboldttek abagune gisa hartzen du gizakiaren berezko izaera linguistikoz edota hizkuntzaren berezko izaera humanoaz jabetzeko. Kontua da, hemendik aurrera, berak arreta handia eskainiko diela euskara bezalako ehundaka hizkuntzari –horien garrantzia ez baita txikiagoa–. Modu horretan, bere antropologia konparatua, nolabaiteko linguistika konparatu baten haritik garatzen du.

Bidaien ondorengo Humboldtten euskal ikerketei espresuki erreparatzen badiegu, bada, ezinbestekoa da euskaldunei buruzko bere monografiaren egitasmoa aipatzea, zeina berak ondoen 1812ko argitalpen

batean zehazten eta oinarritzen duen. Horretarako “behin betiko erabakia”, baina, lehenagokoa da: 1802an, zehazki, Espainiako bidaiaren kontakizuna idazteko ideia baztertzen du, eta bere arreta guztia euskal nazioan –mugaren bi aldeetan bizi diren Vasken deitzen dituen horietan– jartzen du. Gogoan duen euskal monografiak, alabaina, ez du ustezko euskal esentzia bat finkatu nahi –horrelakorik ez dago–, baina Humboldttek posible deritzo, ikusitakotik abiatuz eta konparazioan oinarrituz, euskaldunen talde singularitasuna irudikatzeari. Horretan hiru atal aurreikusten ditu: bidaia kontakizun bat –berak Euskal Herrian bizitutakoa–, hizkuntzaren azterketa bat –euskararen egitura lexikala eta gramatikala– eta ikerlan historiko-filosofiko bat –euskaldunnei buruzko beste hainbat hausnarketa–. Atal horietako bakoitzaren edukian sartu gabe, baina, intergarriagoa zaigu orain Humboldttek bere egitasmo osoaren oinarritzko zutabe gisa hartzen dituen historia eta hizkuntza bezalako elementuak begizatzea. Honenbestez, adierazgarria da, lehenengoa dela eta, berak monografia hori gizadiaren historia naturalaren –ez politikoaren– baitan kokatzen duela ikustea eta euskal nazioa –besteak bezala– estatuen aurretiko giza errealitate kolektibo gisa ulertzen duela. Egitasmoaren

bigarren zutabeak, bestela, euskaldunen nazioa ezaugarritzerakoan Humboldt euskarari esleitzen dion garrantzia islatzen du eta, oro har, agerian uzten du berarentzat nazioa batez ere hizkuntza komunitatea dela. Erantsi dezagun, bukatzeko, euskal monografiak ez zuela bukaerarik ezagutu aurreikusitako moduan –bere eginkizun politiko ugariak ez zioten horretan lagundu– baina zorionez asko dira horren inguruan berak utzi dizkigun testuak.

Euskal bidaien ondoren, esan bezala, Humboldt linguistikara zuzentzen du bere antropologia, egiaz, hizkuntzaren teoria humanistiko bat landuz eta, alde horretatik, hezkuntzari begira esanguratsuak diren beraren hainbat alderdi aipatuko ditugu jarraian. Lehenengoa, bada, hizkuntzaren berezko “izaera soziala” da –gogora dezagun gizakia ere soziala dela berez–, horrexek bakarrik garbi uzten duelarik hizkuntza bera ez dela inondik inora banako baten edo bestearen jabetza pribatua. Eta horrek bide ematen dio Humboldti elkarrizketaren sakoneko garrantzia azpimarratzeko –finean hizkuntzak mintzatzearen eta ulertzearen ekintzak biltzen ditu– elkarrekin hitz eginez bakarrik izango baita posible gizakiaren garapena bideratzea. Aipatuko dugun bigarren alderdia berak hizkuntzaren “izaera nazionala” deitzen duenarekin loturikoa da eta, zehazki, honek agerian uzten du hizkuntza ere, gizakiaren antzera, herri baten edo bestearen hizkuntza historikoetan soilik dela erreala. Hizkuntza, bestela esanda, beti da kultura propio bat duen giza-talde batena –hau da Humboldt nazio gisa ezaugarritzen duena– eta hizkuntza horixe da: hain zuzen, talde hori talde bezala gehien kohesionatzen duen elementua –bakarra ez bada ere–. Hizkuntzaren “izaera formatiboa” da, azkenik, guk hemen aurkeztuko dugun hirugarrena –seguruenik hauxe da esanguratsuen hizkuntza praxiaren aldetik– hizkuntzak ezinbesteko bitarteko bat osatzen baitu edonolako formazio prozesuan. Honen berri ematean Humboldt bi esparru jakin aipatzen ditu: bata, garapen intelektualarena –non hizkuntzari esker es-

kuratzen ditugun eduki berriak–, eta bestea, garapen etikoarena –hemen ere hizkuntzak ahalbidetzen baitigu elkarrekin bizitzen ikastea–. Erantsi dezagun, bestalde, hizpide dugun hizkuntzaren teoria humanistiko honek badituela –aipatutakoez gain– ikuspuntu filosofikoago batetik benetan interesgarriak diren bestelako hainbat aspektu ere.

4 Hezkuntzan ere, beste esparruetan bezala, garrantzitsua da jakitea zer den garrantzitsua eta, honetan, lagungarri gerta dakiguke Humboldtten filosofia. Haren aditu bati entzundakoa da: “Eskola ez da gizartea gaitzeko erreparazio tailerra”. Baina ohikoa da, edozein arazoren aurrean, eskolari kontuak eskatzea eta soluzioak exijitzea. Honela, bada, etengabe aldatzen ditugu edukiak eta estrategiak eta, maiz, ahaztu egiten dugu berrikuntza erraz bihur daitekeela berrikeria: zenbat balio du berria denak jaio orduko zaharra bada? Gainera komunikabideen beldur gara eta, nahi gabe ere, barruko gabeziak kanpoko itxurarekin ezkatzen ditugu: izana baino gehiago preziatzen dugu izena. Zergatik eta zertarako hezi galdetzea, baina, sahiestezina bezain funtsezkoa da eta, alde horretatik, haren humanismoa ez da inondik inora modaz pasa. Eta propioki euskal hezkuntzari erreparatzen badiogu –eta baita oro har euskal auziari ere– modu bertsuan agertzen zaigu probetxugarri Humboldtten pentsamendua. Azpimarratzekoa da, honela, berak ez duela gizakiaren eta hizkuntzaren arteko lotura soilik teorikoki lantzen, baizik eta gizabanako edota giza-talde ezberdinak zuzenean behatuz eta horien hizkuntza historikoak zehatz aztertuz. Honela, bada, berak hizkuntzaren izaera sozialaz, nazionalaz eta formatiboaz diharduen bezala –eta berari jarraituz– guk ere euskararen eginkizun sozialaz, dimentsio nazionalaz eta zeregin formatiboaz hitz egin dezakegu. Gure aspaldiko eta urrutiko “adiskidea”, beraz, prest daukagu guri laguntzeko: baina horretarako guk ere prest egon behar dugu berarengandik ikasteko.

“Humboldt humanista bat da ezeren aurretik, eta, alde horretatik, hezkuntzari buruzko ekarpen antropologiko-filosofiko sakonak utzi dizkigu. Dezente engaiatzen da politikan –bai hausnarketa teorikoak eginez bai jarduera praktikoetan inplikatur– eta bera da, adibidez, Berlingo lehen unibertsitatearen sortzailea. Hizkuntza, azkenik, bere aztergai kuttunena da –bereziki, Euskal Herrian egon eta gero–. Horri buruzko saiakera filosofiko eta linguistikoak oso aberatsak dira”.

“Euskal Herrira egindako bidaiak garrantzi handia dute Humboldtten pentsamendu antropologikoaren garapenean, hain zuzen, euskararekin topo egiten duenetik berak oro har geroz eta garrantzi handiagoa ematen diolako hizkuntzari. 1797an Parisera joan aurretik ere, preseski, gizakiaren dimentsio unibertsala eta singularra edota beraren izaera erreala eta potentziala –bai maila indibidualean bai maila kolektiboan– batera kontsideratzen lagunduko dion 'zerbaiten bila' dabil”.

GALDEIDAZU

Zer baliabide ditugu haurrak era parekidean hezteko?

Gaur egun, oraindik, generoak estereotipatutako uste, funtzio, rol eta jokabideak errepikatzen jarraitzen dute haurrek. Izan ere, familian, eskolan, kalean eta komunikabideetan gizon eta emakumeen ikusmolde estereotipatuak jaso eta barneratzen dituzte. Hori aldatu ezean, arriskua dago haur horiek helduaroan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik eza, diskriminazioa, bortizkeria matxista eta antzekoak ontzat emateko edota horiek eragiteko.

Zorionez, bada arrisku hori saihesteko tresna egoki bat: hezkidetza. Esku-hartze prozesu hezitzailea da hezkidetza, eta honako helburu hau du: generoen arteko desberdintasunak desagerrarazi, eta gizonak eta emakumeak eskubide, aukera, tratu, betebeharrak, itxaropen, baliabide, kargu, espazio, denbora eta eskaera-aukera berak izan ditzaten lortzea, besteak beste.

Azken urteetan ontzat eman den “berdintasunean bizi gara gaur egun” baieztapena, zoritxarrez, ez da errealitatearen isla, hori sinestarazi diguten arren. Gaur egun, emakumeak lan egiten duenez, ikas dezakeenez, bidaiatu dezakeenez, berdintasunean bizi garela esan digute, baina, ondo dakigun moduan, berdintasun hori ez da errealia. Aurrerapenak egin direla onartu beharra dago, baina oraindik asko dago egiteko, berdintasun erreala iristeko: gaur egungo gazteek



ILAZKI GAINZA FORMATZAILE FEMINISTA



dituzten mendekotasunezko bikote-harremanak aztertzea besterik ez dago horretaz jabetzeko.

Azken urteetan, eskoletan landu izan da batez ere hezkidetza. Eta eskole-tako lanketa beharrezkoa iruditzen zaidan arren, hezkidetza ezin da eskola-eremura mugatu. Izan ere, generoaren ikusmolde estereotipatua eta sexista nagusiki sozializazio-eragileen bitartez barneratzen da, eta jai dugu eskolan hezkidetza sustatu arren familian, komunikabideetan eta, oro har, jendartearen, jarrera edo balio sexistak transmititzen jarraitzen bada. Hala, uste dut hezkidetzak politika integrala behar duela, hau da, eskolan, familian, komunikabideetan, lan-eremuan, lagunartean eta bestelakoetan gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna sustatuko duten legedia, praktika sozialak, usteak, ohiturak, arauak eta antzekoak bultzatu behar dituela politika horrek.

Hezkidetza eremu horietan guztietan lantzetik urrun gauden arren, hainbat irizpide kontuan izaten baditugu, guk uste duguna baino gehiago aldatzen ariko gara.

Nola hitz egiten diegu seme-alabei, haur eta gazteei?

Hizkuntzak ez dira sexistak, hiztunok ematen diegun erabilera baizik. Hori dela eta, ezinbestekoa da hizkuntza era inklusiboan erabiltzea —hizkuntza ez-sexista erabiltzeko hainbat modu azaltzen dituzten gida ugari argitaratu

dira azken urteetan —, hizkuntzak pentsamoldea eraikitzen duelako. Hizkuntzaren erabilera kultura-indarkeriaren elementutzat har daiteke. Izan ere, mintzairaren bitartez errealitateak bere horretan —besteak beste, emakumeak zapalduta— jarraitzea lortzen da. Baina mintzairaren erabilera aldatuz gero, errealitatea aldatzea lor daiteke. Horretaz jabetzeko, hizkuntzaren erabilera inklusiboa sustatzeko pare bat baliabide azalduko dizkizuet jarraian:

- **Alderantzikatze-araua**

Alderantzikatzearen araua aplikatzea oso erabilgarria da sexismoa atzemateko. Mintzairari dagokionez, —iruditegiarekin ere erabil daiteken baliabidea da—, hona hemen adibide bat: “Lehenengo aukeratua Miren Azpitarte izan zen, 39 urteko emakume ederra”. Alderantzikatzearen legea aplikatuko diogu, eta pentsatuko dugu aukeratua, Miren izan beharrean, Aitor dela. Horrela geldituko litzateke titularra: “Lehenengo aukeratua Aitor Azpitarte izan zen, 39 urteko gizon ederra”. Zer iruditzen zaizu? Ez al zaizu “arraro” egiten? Emakumeez jarduten garenean “normaltzat” uleretzen ditugunak gizonengan arraroak iruditzen baldin bazaizkigu, hizkuntzaren erabilera sexista egiten ari gara.

- **Asmakizunak**

Mintzairaren erabilera sexista atzemateko erabiltzen dira asmakizunak: hain zuzen ere, maskulinoak gizon-emakumeak izendatzearen ondorioz pentsaerak maskulinora jotzeko joera ote duen aztertzeko. Hona hemen adibide bat: “Aita bat bere semearekin motorrean doa. Istripua izan dute, eta aita bertan hil da. Semea larri zaurituta geratu da. Anbulantzia batek ospitale hurbilenera eramaten du, eta han denak kirurgialaria bilatzen hasten dira. Hark oihi egiten du gaztea ikustean: “Ezin diot ebakuntzarik egin, nire semea da!”. Kirurgialaria haurraren ama da. Erantzuna asmatu al duzu? Hori otu al zaizu? Barneratuta ditugun iruditegiek ere hizkuntzaren erabilera sexista bultzatzen dute; kirurgialaria gizonekin lotzen da askotan, erizaina emakumeekin lotzen den bezala. Hori ez al da sexista? Argi ikus dezakegun moduan, hizkuntza era ez-sexistan erabili arren, barneratuta ditugun estereotipo eta rol sexistek, ortografia

eta deklinabideak gailendu, eta gure pentsaeran eragiten dute, hizkuntzaren erabilera ez-sexista dirudiena sexista bilakatuz.

- **Jostailu, ipuin eta bestelakoak**

Hizkuntzaren erabilera erreparatzeaz gain, haur eta gazteek eskolan edota aisialdian ikusi eta irakurtzen dutenari arreta jarri behar diogu. Telebistan ikusten dituzten saioak, antzerkiak, filmak, jokoak, irakurtzen dituzten ipuin eta liburuak. Zer balio helarazten dira horietan guztietan? Zoritxarrez, oraindik badaude balio sexistak helarazten dituztenak, baina baita parekideak ere. Horiek topatzen saiatuko gara, eta, horretarako, ipuin eta jostailuen gida ez-sexistak eskura izatea lagungarri izango zaigu. Gida horietan, jostailu egokien zerrendak topatu ahal izango ditugu, adinaren arabera banatuta, besteak beste. Ipuin ez-sexisten gidetan, bestalde, ipuinen izenburuaren, argitaletxearen, idazlearen eta ilustratzailearen berri izango dugu, eta horrek pistak emango dizkigu: zein dira ipuin parekideei lekua eskaintzen dieten argitaletxeak? Nork ipuin parekideak idatzi edo ilustratzen dituzten pertsonak? Liburu bat erosi, oparitu edo berrerabiltzeko orduan baliagarriak izango zaizkigu gida edota zerrenda horiek.

Ipuinei garrantzia kendu izan zaie, ziur asko haurtzaroak helduon garapenean duen garrantziaz ahaztuta. Edozerk harritzen gaituen aroa da haurtzaroa, dena berria den garaia. Ipuin bateko neska informatikari batetik hasita, bere helburu eta irrikak alde batera utzi eta soilik familia eta etxea zaintzeaz (jendarteak hori diolako) arduratzen den emakumera egon daitezkeen aukera guztiek harritzen gaituzte une horietan. Beraz, zer bultzatu nahi dugun, hori islatu behar dugu ipuinetan. Zer jendarte nahi dugu etorkizunean? Neskak ere informatikariak izan daitezkeela —hau da, mutilek soilik egin dezaketen lana ez dela— bultzatu nahi dugu, edo etxean egon behar dutela familia zaintzen eta etxea garbitzen, beren helburuak alde batera utziz? (Argi utzi nahi dut lana utzi eta familia zaintzea erabakitzen duen emakumeak eskubide osoa duela hori egiteko, baldin eta bere nahia hori

Esku-hartze prozesu hezitzailea da hezkidetzak, eta honako helburu hau du: generoen arteko desberdintasunak desagerrarazi, eta gizonen eta emakumeen eskubide, aukera, tratua, betebeharrak, itxaropen, baliabide, kargu, espazio, denbora eta eskaera-aukera berak izan ditzaten lortzea, besteak beste.

bada. Kasu honetan zalantzan jartzen dudana da hori inposatua ote den —bai familiak hala bultzatuta, bikotekideak edota estereotipoek—, norberaren hautua ote den, alegia). Edota beren bizitza “konponduko” dien printzearen bila joan behar dutela? Helduok egiten eta esaten diegunaren arabera egituratzen dute haurrek euren izaera eta izana. Heldu garenok zenbatetan errepikatu izan ditugu txikitari amak edo aitak esaten zizkigun esamoldeak? Kontatzen dizkiegun istorioetan neska ausart eta indartsuak mutil sentibera eta arduratsuekin batera agertzen badira (beste hainbat adjektibo eta ezaugarri ere badituzten neska eta mutilekin batera, noski), emakume enpresariak eta gizonen zaintzaileen inguruko istorioak kontatzen badizkiegu, errealitatez ulertuko dituzte, eta halako jendarteak egituratuko dute.

Argi dago, hala ere, asko dugu —la oraindik egiteko, egunerokoan bizitzen dugun errealitatean ez dugula halako aniztasuna ikusten norbera bizi den herri edo hiriararen arabera ere egoera aldatu egiten delako. Baina beharrezkoa da ipuin parekideen bidez askotariko errealitateak eta egoerak ikusaraztea haurrei, haien irudimena

Jendarteak normalizat ulertzen dituen jarrera eta bizieretatik kanpo geratzen direnek, une horretako jendartean dauden arauak hausten dituztenek —tutuak eta gonak erabiltzea gustuko duten mutilak, taxi-gidariak izan nahi duten neskak, mutil bati ezezkoa ematen dioten neska gazteak, takoirik gabe alfonbra gorritik igarotzea erabakitzen duten aktoreak, zakila duten neskak, alua duten mutilak, etab.— inguruko mespretxua jasan behar izaten dute oso gaztetatik: eskolan, unibertsitatean eta lanean hasita ere. Ez duguna ulertzen ez dugu errespetatzen askotan, bizi ez dugulako, segur aski. Beraz, ipuin parekideak beharrezkoak dira gure txikiei errealitate desberdinak azaltzeko.

lantzea eta bizi dituzten eta bizi ez dituzten egoeren inguruan eurekin jardutea. Aniztasuna normalizatzea, alegia.

Jendarteak normalizat ulertzen dituen jarrera eta bizieretatik kanpo geratzen direnek, une horretako jendartean dauden arauak hausten dituztenek —tutuak eta gonak erabiltzea gustuko duten mutilak, taxi-gidariak izan nahi duten neskak, mutil bati ezezkoa ematen dioten neska gazteak, takoirik gabe alfonbra gorritik igarotzea erabakitzen duten aktoreak, zakila duten neskak, alua duten mutilak, etab. — inguruko mespretxua jasan behar izaten dute oso gaztetatik: eskolan, unibertsitatean eta lanean hasita ere. Ez duguna ulertzen ez dugu errespetatzen askotan, bizi ez dugulako, segur aski. Beraz, ipuin parekideak beharrezkoak dira gure txikiei errealitate desberdinak azaltzeko.

Pentsa dezagun une batez zer den ipuinekin hurrei helarazi nahi dieguna. Baliagarriak iruditzen al zaizkigu nahi dugunerako? Beraz, edozein ipuin aukeratzea nahikoa al da? Edo, duten garrantzia ikusita, ondo erreparatu behar al diegu lantzen dituzten gaiei eta gai horiek lantzeko duten moduari?

Hala ere, ziur asko, ipuin ugari dituzu etxean edo eskolan, eta batzuek, beharbada, balio sexistak helarazten dituzte. Ez dituzu bota behar, erabilgarriak dira hurrekin balioak lantzeko. Hau da, ipuina beste era batera irakur daiteke, edota eurekin landu zergatik dauden neskak era batera jantzita eta mutilak bestera, edo zergatik diren printzeak ausartak eta printzesak ahulak eta izaera gutxikoak, etab. Heldu eta haurren artean istorioak alda ditzakegu; era horretan, balioen inguruan hausnartzeaz gain, irudimena lantzeko bide polita eta aberasgarria da honakoa. Ipuin sexistak ere baliagarriak dira hezkidetzan lantzeko unean. Beraz, erosi edo oparitu behar ditugunean, egokiena zuzenean ipuin parekide bat hautatzea litzake, baina, ditugun ipuinak erabili nahi baditugu, ipuin sexistak ere baliabide egokiak dira, esan bezala.

Beraz, mintzairaren erabilera ez-sexista errazteko ikusi ditugun baliabideez gain, ipuin parekideak —eta

jostailuak — eta beroriek biltzen dituzten gidak ditugu erreminta moduan hurrekin hezkidetzan lantzeko.

Azkenik, hezkidetzarako baliagarriak diren film, komiki, antzezlan eta bestelakoak era laburrean aztertzeko baliabidea azalduko dut segidan. Filmetan, komikietan, antzezlanetan eta beste kultura-produktuetan genero-desparekotasuna neurtzeko sistema bat da; Alison Bechdelen *Dykes to Watch Out For* komikiaren bidez hedatu zen. Hau da testa edo legea ebaluatzeko bidea:

1. Filmean gutxienez bi pertsonaia emakumezko ateratzen dira.
2. Pertsonaia horiek, behin bederen, elkarrekin hitz egiten dute.
3. Elkarriketa horren gaia gizon bat ez den beste zerbait da (baldintza hau ez dagokio bikote-erlazioari bakarrik: adibidez, aitari buruz diharduten bi ahizpek ere ez dute testa gaintzen).

Testaren aldaera batek eskatzen du, horiez gain, bi emakumek izena izan behar dutela.

Hiru arau horiek alderantziz jarriz gero, hau da, emakumeen ordez gizonetzkoie aplikatuz gero, ia film guztiek betetzen dituzte; aldiz, emakumezkoie aplikatuz gero, harrigarria da zenbat filmek ez duten testa gaintzen.

Bechdel testa era errazean azaltzen duen bideoa ikusgai dago Interneten.

Zure gustuko filmek, liburuek edo antzezlanek gaintzen al dute Bechdel testa? Eta zure inguruko hurrek ikusten eta irakurtzen dituztenek? Hiru arauak sinpleak dira, betetzeko errazak direla dirudi, baina zure film gustukoenetan pixka bat pentsatu baduzu, konturatuko zara askok ez dutela gaintzen. Beste kultura-produktuetan ere, zoritxarrez, gauza bera gertatzen da.

Hezkuntza-eredu parekidea garatzeko, beraz, ez da nahikoa jostailu bat edo bestea aukeratzea, hizkuntzari, kulturako edo hezkuntzako produktuei eta gure pentsatzeko erei erreparatu behar diegu. Nork bere ikuspegiak aldatzeko prest egon behar du, hurrei balio hezitzaile eta parekideak helarazi ahal izateko. Ez da egun batetik bestera lortzen den zerbait, lan handia da norberak egin beharrekia, baina merezi du.

"ELS CARRERS SERAN SEMPRE NOSTRES"

kamisetak ARGIAn salgai

Kamiseta hau erosita, 2 euroko ekarpena egingo diozu Kataluniako La Directa herri hedabideari, eta 2 euroko ekarpena ARGIAri, Kataluniako independentzia prozesua epe ertainera ere zorrotz jarraitu ahal izan dezan.



**Informaziorik gabe ez dagoelako demokraziarik,
kazetaritzan ere sustatu independentzia!**

ESKAERAK

www.argia.eus/azoka | azoka@argia.eus | ☎ 943 371 545

ATZEKO ATETIK



ESKERRIK ASKO! Orain esan dezaket

ELEN KORTAXARENA

IRAKASLEA ETA BIODANTZA BIDERATZAILEA

3urterekin hasi nintzen eskolan. Nahiz eta ez dudan gogoratzen nire lehen eskola eguna nolakoa izan zen, baditut gorputzean garai hartako sentsazio eta oroitzapenak. Nire amadut gogoan, berak eraman eta jasotzen ninduela. Ze poza eta babesa, eskola ordua amaituta, amarekin berriz elkartzen nitzen momentukoa! Eta eskola orduetako oroitzapenak, berriz, 3-6 urte bitartean, apenas berreskura ditzaket modu kontzientean. Beste haurrekin nituen harremanen inguruko sentsazioak dira nire barruan argitzen diren sekuentzia, momentu edo egoera bakarrak.

Oso gogoan dut 6 urterekin mailaz igo ginen eguna. *Parbulitos* garaia pasa eta *handien solairuan* hasten ginenekoa. Pozik sentitzen zen nire gorputzaren zatia berreskura dezaket eta baita urduri eta sabel aldeko tximeletak sentitzen zituena ere. Handien eremura harrotasunez sartzen zen zatia, bestalde. Eta hurrengo urteetan, 14 urteak bete arte, OHO garaia bizi ahal izan nuen gorputzean eta hainbeste dira esperientziak, bizipenak, sentsazioak, ikasketak, gogoetak... urteak pasata eta heldu aroan, oraindik ere zuku ederra atera diezaiekedala garai

hartan barneratutako, gorputzutako, bizipenei.

Irakasleek eskaini zizkidaten bizipen eder eta zoragarriek eskerrak emateko gogoia sentitzen dut baina, batez ere, nire gorputzean hain goxo sentitu ez nituen bizipenek, gerora, garapen pertsonalean hazten jarraitzeko eskaini didaten aukeragatik da gaurko idatzi honen esker ona!

Egia osoa konpartitzen jarraituta, ezin izan dut urte luze batzuetan “esker on” hau sentitu eta adierazi. Buruak esan izan dit eskola hartan zeuden irakasle eta pertsonak beraien onena ematen saiatu zirela momentu oro, beraien modura. Baina gai honetan nire burua eta gorputzaren artean disoziazio galanta eman izan da. Buruak halako mezuak esaten zizkidan bitartean, nire gorputzak amorrua, inpotentzia eta mendeku gogoak izan baititu urteetan. Eta hemen aurkitu dut nire hazkunde pertsonalerako altxor preziatueneraiko bat.

Beraz, zein izan da egin ahal izan dudan bidea nire gorputzean hain preziatua den bakea berreskuratzeko? Eskola garaiari dagokionean, behintzat?

Alde batetik, irakasle haiek eta testuinguru hura ahalik eta modu objek-

tiboenean ikusi ahal izatea. Irakasleen beraien egoera eta ibilbide pertsonalaz jabetzea, ahal zen neurrian. Zer-nolako irakasleak izango zituzten aldi berean, niri irakatsi zidaten pertsonak? Eta zer-nolako familia testuinguruak? Zer-nolako egoera pertsonalak? Ezintasunak, beldurrak, minak, zurruntasunak... eta baita beraien alderik samurrena eta ederrena erakustera eramaten zituzten testuinguruak ere.

Modu horretara eta urte askotako lanari esker *etsaia*-ren arketipotik atera ahal izan ditut eta dagokien tokian jarri, beraien historia propioarekin. Gauza ez da beraiek egin zutena edo egiteari utzi ziotena baizik eta nigan guzti horrek, heldu garaian utzi duen arrastoa. Eta orain bai, gai naiz (umetan ez bezala), nire tokia eta ardurak hartzeko eta garbiketa emozionala martxan jartzeko. Besteak beste, “nire helduak” “nire haurraren” minak, haserreak, tristurak, urduritasunak, pozak, kezak, eta beste hainbat emozio onarpenez eta maitasunez jasoz. Nire haurra ikusiz eta bere garaian jasoak izan ez ziren bere beharrak atentiduz.

Ederra litzateke egungo irakasleen egitekoa, besteak beste, honetan ere oinarrituko balitz!



Burdin Harana
Legazpi - Gipuzkoa

Hezkuntza

Argazkia: Jose Alzola

Mirandaolako Burdinola martxan!!

Historian atzera egingo dugu eta Erdi Arotik Industrializazioa Euskal Herrian burdinak izan duen garrantziaz jabetuko gara.

Hiru gune

1 BURDINOLEN IBILBIDEA, XI-XIX MENDERAINO.

Aizkora-Aratz parke Naturalaren magalean, UR-OLA ibaiak jaotzen da. Burdin Haranaren ardatz nagusia. Bertan olagizonak eta basementak bizi izan dira.

- Arzakibaren Ekimuzoa
- Opiaren Tenkea

2 MIRANDAOLAKO PARKEAN, XIX. MENDERAINO.

Aurre industrializazioan murgilduko gara, Mirandaolako Burdinola martxan ikusiz. Teknologia, energiak, lanbideak eta besteak gaiak lantzen ditugu.

- Euzkai Burdinaren Museoa
- Mirandaolako Burdinola

3 LANGILEEN IBILBIDEA, IRAILTZA INDUSTRIALA.

Burdinola zaharrek lantegi bihurtuko dira, olagizonak langile, eta baseri asko langileen etxebizitzak. 1950. urtean murgilduko gara, frankismo garaiko herri industrializatu batera.

- Lantzia
- 1950eko etxak eta etxebizitzak
- Chitile Lantzi - Artea

Talde handientzako prezio bereziak.

Bikiki izanez gero, ingeluz egin daiteke bisita

Olagizonen elkartetako aukera

www.lenbur.com

943 73 18 95

943 73 04 28

ikerкета@lenbur.com

Egun bateko edo bizpahirako egunetako egonaldiak. Eguraldi berrarekin "B" plana. Malla guztiak egokitutako tailer eta bisitak. Mirandaolako Parkean, merendena, frontola, haurren parkea, pista jokoa, eta beste daude.



LEGAZPIKO UDALA

Gaxuxaren klarion magikoa

Alvaro eta Oihane Beñaran

“Gaxuxaren klarion magikoa” haurren beldurrei buruzko ipuin bat da. Bizitzaren garai horretan (2-6 urte) agertzen diren beldurrei aurre egiten laguntzeko egindako ipuin bat, besterik ez. Gure gizartean sortutako zenbait pertsonaia beldurgarriekin, Gaxuxak (hau da, haur guztiek) bere klarion magikoa erabiliko du, beldurrak giltzapean sartzeko.



Informazioa eta eskariak egiteko

www.hikhasi.eus